


***HAN HEMENKA***



***KANTARI***

115 x 140 mm

080612

**ABERRIAREN MUGAK: (EX5)AAG#F# (AM)**

Hitzak: Joserra Garzia - Musika: Txomin Artola

**Nire aberria lurra bezain zah'rra da  
baina ez da lurra bakarrik  
haizeak bezala inguratzen nau eta  
lotzen askatzen nauelarik.  
Nire aberria suaren antzekoa da  
beti bera berria beti  
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean  
'ta erretzen ere badaki.**

*Aberriaren mugak, euskararenak  
gure baitan daude gehienak  
euskara zabalduaz lau haizetara  
zabalago egiten gara.*

**Nire aberria harrizko herria da  
hitzezkoa eta hitzekoa  
altzairuzko txakolin ardo zurezkoa  
eta hondar anonimoa.  
Nire aberria burdin bihurria da  
oroimenean arindua  
itsas-laminen baten herdoilezko kantu**

etorkizunez fosildua. (*Aberriaren mu.....*)

**AGUR ETA OHORE ESKUAL HERRIARI  
(GAUDEN ESKUALDUN): BEF#G... (Em)**

Hitzak: Gratien Adema, Zaldubi, 1893

Musika: Urko

*Zazpi Eskualherriek bat egin dezagun,  
guztiak beti, beti, gauden gu euskaldun (Zaz...)*

Agur eta ohore Eskual Herriari,  
Lapurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari,  
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Alabari,  
zazpiak bat besarka lot beitez elgarri.

*Zazpi Eskualherriek ...*

Haritz eder bat bada gure mendietan,  
zazpi adarrez dena zabaltzen airetan.  
Frantzian, Espanian, bi alderdietan:  
hemen hiru 'ta han lau, bat da zazpian.

*Zazpi Eskualherriek ...*

Ekalde Iberian lehenik sortua,  
lau mila urte huntan hor da landatua;  
hain handi lur libroan lehen izatua,  
orai gure haritza zein den murriztua!

## **AGUR JAUNAK**

Agur Jaunak, jaunak agur, agur t'erdi. (*Agur j...*)

Denak Jainkoak 'inak gire

zuek eta, bai gu ere.

Agur Jaunak, agur, agur t'erdi, hemen gire. (*Den...*)

Agur Jaunak.

## **AGUR XIBERUA**

Hitzak eta musika:

Pierre Bordazarre, «Etxahun Iruri»

Sor **leküa ützi**rik gazte nintzalarik

Parisen **sartü nintzan** korajez **beterik**

Plazerez **gose etabürüan hartü**rik

Behar **nüala** alagera bizi

Bostetan **geroztik nigar** egiten dit

**Xiberoa zuri.**

*Agur Xiberoa*

*bazter güzi*etako xokorik *ejerrena*

*Agur sor leküa*

*zuri ditit ene ametsik goxoenak*  
*Bihotza'n erditik*  
*Bostetan elki deitadazüt hasperena*  
*Zü ützig geroztik*  
*bizi niz trixterik, abando natürik*  
*Ez beita herririk*  
*Paris ez besterik, zü bezalakorik.*

Palazio ederretan gira alojatzen  
eta segür goratik aide freska hartzen  
Gain behera so'ginik betzait üdüritzen  
Ori ganen nizala agitzen  
Ben' ez dira heben  
Bazterrak berdatzen  
Txoriak kantatzen.

*Agur ...*

Ametsa, lagünt nezak ni Atarretzerat  
Ene azken egüenen han igaraitera  
Oriko txoriaren kantüz behatzera  
Parka ditzan nik egin nigarrak  
Hots, Xiberotarrak  
Aintzinean gora  
Eüskaldün bandera.

Agur ...

**AGURE ZAHARRA: EEE(F#x3)G... (Em)**

**L'estaca** (Lluís Llach)

Euskal bertsoa: Gorka Knörrek

**Agure zah'r batek zion bere etxe aurrean  
goizean goiz lantokira irteten nintzanean:  
Ez al dek, gazte, ikusten gure hesola zein dan?  
Desegiten ez badugu, bertan galduko gera.**

*Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,  
usteltzen hasia dago-ta, laister eroriko da.  
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik  
hemendikan,  
ikusiko dek nola-nola laister eroriko dan.*

**Baina denbora badoa, nekea zaigu hasi,  
eskuak zartatu zaizkit, eta indarra utzi.  
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik,  
berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin:  
(Baina guztiok batera ....)  
Agure zah'rra falta da gure etxe ondotik,  
haize txar batek hartu ta eraman du hemendik.**

**Haur** batzuk ikusten **ditut eta** inguraturik;  
**aitona zah'rraren kanta nahi diet erakutsi:**  
(*Baina guztiok ...*)

## **AI, HAU EDARI ZORAGARRIA**

Bost baso ardo atera eta bost tragotan hustu,  
beste bat edateko inon beharrik ez dut;  
edan korriente baino pagatzea ah'ztu,  
hola tabernaria nekez aberastu.

Goizean sartu tabernara eta  
ateratzen naiz azkena.  
Egun guztian zurrutian ta  
ez zait betetzen barrena.  
Ai, hau edari zoragarria  
neri gustatzen zaidana!  
Maria Jesus, bihotzekua,  
bete hamaseigarrena.

Ipurtzuloa itxita hamar egunean,  
zezenak izan ziran askatu zanean.  
Salto eta brinkoka ohearen gainian,



ikusi zutelako  
kaka\_orinalian. (Goizean sartu tab...)

## **AI ZER PLAZERRA**

Pierres Bordazarre "Etxahun-Iruri"

Ai zer plazerra **bost** urten **bürüan**  
**sorlekülat** **ützültzia**  
**Ene herria, etsitü nian, zure berriz ikustia;**  
aski **sofritüz nik** hanitxetan **desir nükian hiltzia,**  
ezpazüntüdan hain maite **üken**  
oi ama **Eskual Herria.**

**Hanitxen gisa partitü nintzan**  
**etsaien güdükatzera;**  
**gogoa bero, bihotza laxü, eta kasik alagera,**  
ezpenakian orain ordian,  
zer zen **amaren beharra,**  
**hari pents' eta biga-bostetan,**  
**aiher zütazün nigarra.**

**Erresinola kantari eger libertatean denean,**  
bena trixtüran **higatzez doa**  
**kaiola baten barnean;**

gü ere, ama, **hala** güntüzün tirano haien artean,  
**zure ametsa kontsolagarri**, trixtüra **handi**enean.

**AITA-SEMEAK:** (Ax4)BAB...(DM)

Hitzak: Mikel Zarate

Musika: Oskorri

*Aita semeak tabernan daude,  
ama-alabak jokoan. (Aita semeak ...)*

Berriz ikusi beharko dugu,  
behi gizona auzoan,  
berriro ere ez da faltako  
trapu zaharrik kakoan. (*Aita-semeak ...*)  
Eta lapurrek ohostu dute  
guk gendukana etxean,  
eta gu gaude erdi biluzik  
beti inoren menpean. (*Aita-semeak ...*)  
Geurea dugu erru guztia,  
geurea dugu osoa,  
ez inori, ba, errua bota  
Euskal Herria hiltzean. (*Aita-semeak ...*)  
Baina gaztea naiz eta daukat  
etorkizuna eskuan,

ez zaigu hilko Euskal Herria  
ni bizi naizen artean. (*Aita-semeak ...*)

**AITATXIREN AUTOA** -M. Labeguerie-

Gure aitatzik dauka oto bat xarmanta  
Urtez aberats eta motorrez marranta.  
Jazko neguaz geroz zilo du kapota  
Hoberena du naski kautxuzko turruta.

Hauxe da motorra, dena su 'ta karra  
Oi hunen indarra, jausten duelarik patarra.

Urrundik entzun eta otoa eztulka  
Zakurrak hasten dira ihesik saingaka  
Leherturik baditu oiloak ehunka  
Mutxurdinak hamar bat, jandarmak hameka.

Gure aitatzik baino kontentago denik  
Bere karroaz ez da amerikanorik  
Luzaz iduki ditzan bi biak bizirik  
Jaungoikoari otoitz egiten diot nik.

## **AITARENAK –B.Sarasola, P.P. Berzaitz-**

Zendako beti lasterka, jende gaixo hori doa  
Sos madarikatu horren, ondotik du hatsa galtzen  
Aberatsak baliatzen, ogi-lurak dauzkutela kentzen  
Trixterik nago Jainkoa, ardien jale otsoa,  
Ote da beti beharrezkoa

*Beharrezkoa da haurrak sortzia*

*Bihar joko dute horiek ortzia. (Beharr...)*

Iluna jausten denean, etxe hutsaren gainean  
Ait'amak supazterrean, penaz nigarra begian  
Elgarri so ixilean, su-argirik gabe bihotzean  
Egun guzia lanean, etxerat bildu ondoan  
Hotzik gaude iduri neguan.

*Negurik ez dago ustez zeruan*

*Betikoa aldiz bai ifernuan*

Gure herriko bidetan, botz guti ari da kantetan  
Ostatu gune xokotan, gazte gutida musetan  
Pilotarik ez plazetan, mutil neskato dira hiritan  
Arrotzak gure lurretan, ihiztariak gure menditan  
Ondokariak gure oihanetan.

*Tenpesta heldu da hego aldetik*

*Axeriak jelgi zien xilotik.*

Gaitzik ez dut desiratzen, zauztener ene behatzen  
Dautzutet hemen aitortzen, aita baten pena zer den  
Seme bat dela'ik urruntzen, bihotza errotik ateratzen  
Gure herrian arima'ik, ez dut gehiago senditzen  
Zainak odolez zauzkigu husten.

*Landaretik lore loretik hazi,  
hazitik fruitua 'ta berriz hasi.*

### **AITORMENA**

Hitzak eta musika: Hertzainak (Gari)

Ez dira betiko garai onenak  
azken finean gizaki hutsak gara  
barearen ostean dator ekaitza  
udaberri berririk ez guretzat.  
Denbora aurrera etengabe  
ta orain ezin eutsi izan ginana  
rutinaren morroiak bihurtu gara  
laztana, lehen baino lehen aska gaitzean  
Ohartu gabe arrunt bilakatua  
ohartu gabe heldu gara mugara  
mundua jausi zaigu gainera  
maitea, lehen baino lehen aska gaitzean,  
Ez dakigu non dagoen hoberena

bila dezagun beste lekuetan  
Bai, zin dagizut,  
ez dizudala inoiz gezurrik esan eta  
zaude ziur, ezin izango zaitudala  
ahaztu inoiz.  
Aitortzen dut izan zarela  
ene bizitzaren onena.  
Baina orain, maitea, lehen baino lehen  
aska gaitzan.

**AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA:**  
EBEF#G#A... (EM)

Aitorren hizkuntz' zah'rra nahi dugu zabaldu  
munduaren aurrean gizonki azaldu,  
baldin gure zainetan odolik badugu  
euskaldunak euskaraz hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra euskara guria  
inun ez dut aurkitzen beste bat hobia  
usai goxondun hizkuntza txukun ta argia,  
bira - orikan ez duan hizketa garbia

Gora euskara maitea zoragarriena  
euskalduen artean maitagarriena.  
Munduan sortu zanik hikuntzik zah'rrena,  
gora 'ta gora euskaldunak eta gure euskara.

### **ALA KINKIRI**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako dama gazteak  
ez dira moja sartuko.  
Ala kinkiri, ala kunkuru,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
ala kinkiri kunkuru kanta  
gu bezalakoak dira, hola!  
Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza huntako gizon gazteak  
ez dira fraile sartuko. (*Ala kinkiri ...*)  
Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza huntako gazte guztiak  
ezkontzan dira sartuko. (*Ala kinkiri ...*)

## **ALDAPEKO**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Aldapeko sagarraren adarraren puntan  
puntaren puntan txoria zegoen kantari.  
Txiruliruli, txiruliruli,  
nork dantzatuko ote du soinutxo hori.

## **ALTZATEKO JAUN**

Hitzak eta musika: X. Lete

Altzateko jaun, hor zaude nunbait  
zure lurrera itzultzeko zain.  
Gure izatearen testigu zuzena  
makurtu gabeko zuhaitz lerdena  
desertuko haizeak legortu ez zuen lorea  
itsasoaren kolorea, hor zaude zu.  
Hamasei salbe ta hamalau kredo  
erderaz entzunagatik  
bazenekizun hori ez zela sekulan guretzat egin.  
Urrezko dukat eta dirua ez dira engainu txarra  
bazter batera apartatzeko  
lehengo sinismen zaharra.  
Merkatarien aldamenera



amildegian goitik behera,  
oharkabeen eroriko gera;  
baina guztiok jakin dezagun  
bidea nundik dihoan,  
Alzateko jaun , hor zaude zu.  
Bide batetik okertu gabe esan dezagun bertsua  
ixil-ixilik kanta dezagun euskaldunen sekretua:  
herri zah'r baten oharpen haiek  
nora ditugun galduak.  
zenbat itxura alda lezazken  
eguna hil zuen gauak.  
Bidasoaren esker-eskubi,  
Udaberrian lore gorriak ixilikako ur izkutua:  
mendetan zehar kantu leguna,  
noizpait latinez lurperatua,  
laister berpiztu behar duguna.  
Hamasei salbe t' hamalau kredo  
erderaz entzunagatik  
bazenekizun hori ez zela sekulan guretzat egin.  
Urrezko dukat eta diruak ez dira engainu txarra  
bazter batera apartatzeko  
lehengo sinismen zaharra  
Larrun gainean sorginen dantzak

naba'itzen ditut arratsaldean,  
lurrak badaki kontu hoi en berri  
eta hor dago ixil-ixilik.  
Alzateko jaun, hor zaude nunbait  
zure lurrera itzultzeko zai.

## **AMA EUSKADI**

Zelütik jini dei sühar bat, lo etarik erraustera  
Amari bi koblen huntzeko bortxatü niz sinestera  
Eta ez düt segür herabe, ama zuri kantatzera  
Hain beitzira andere handi, ümila eta ejerra.

Bedatseko lehen be, oetan, Ori delarik berdatzen  
Harrotürik artzainak dira petik gora abiatzen  
Beha itzazü kantan ari zure lürraren laidatzen  
Zuri düen amodioa ez dizüe ezabatzen

Ama egün xiberotar bat, düzü zure zerbüt xari  
Na-hiz egin bestimenta bat, paregabeko berezi  
Artzain batek eskentzen deizü, Ori bortüan da bizi  
Egün oroz gogoan zütü o gaixo ama euskadi. (Artz...)

## **AMA ZER DUZU NIGARREZ**

Hitzak eta musika: Eñaut Etxamendi

Ama zer duzu nigarrez, matelak bustirik urez,  
ala duzu goiz ihitzez?

Argia hastian lilien artian,

Zintzabilenian baratze aldian. (*Argia...*)

Oi jeiki zira goixerik haur maitia zeren gatik?

Aita ez da jin oraindik.

Ikusi nahian aitatto bidian,

izan niz goizian baratze aldian. (*Ikusi ...*)

Bidea da luze luze han bakarrik dabil haize

amak bihotza du leize.

Aita gau guzian gudari mendian.

ama dagonian

baratze aldian. (*Aita gau ...*)

## **AMAK EZKONDU NINDUEN**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Amak ezkondu ninduen

hamabost urtekin, hamabost urtekin.

Senarrak bazituen larogei berakin

oi,ai,oi, neskatila gaztea

agure zah'rrakin  
agure zah'rrakin.  
Ama zertarako det nik agure zah'r hori,  
agure zahar hori?  
Hartu 'ta leihotikan jaurti behar det nik  
ai, oi, ai, neure leihotikan  
jaurti behar det nik, jaurti behar det nik.  
Neska hago ixilikan, abe'tsa den hori,  
aberatsa den hori.  
Pazientziz pasa hitzan urte bat edo bi;  
hori hilez geroztikan biziko haiz ongi  
biziko haiz ongi.  
Deabruak daramala interesatua, interesatua.  
Ha baino nahiago'et nik nere aukerakua,  
ai,oi,ai, hogeit bat urteko gazte loretua  
gazte loretua. (*Ha baino...*)

### **AMERIKARA NOA**

Hitzak : ezezaguna  
Musika: Benito Lertxundi

Amerikara noa ere nere borondatez,  
hemen baino hobeto izateko ustez;  
aspertua bai nago hemengo izatez,

adios aita eta ama ondo bizi bitez.  
Lehenago ere seme bat badit Amerikan,  
orain dela sei urte joana hemendikan;  
baldin topatzen badek haren biderikan,  
esan hakiok aita bizi dala oraindikan.  
Kafea hartutzen det egunean bi aldiz,  
baita paseatu ere nik nahi aina zaldiz;  
jan edanaren faltik ez, osasuna berriz...  
aita bizimodu hau Donostian izan balitz.

### **AMERIKETARA JOAN NINTZAN**

(Ex3)F#EF#E... (AM)

Hitzak eta musika : ezezaguna

Amerikerata joan nintzan xentimorik gabe  
handik etorri nintzan, maitea, bost miloien jabe.  
Txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa,  
haretzek ematen dit, maitea, bihotzean poza.  
(*Txin, txin ...*)

**AMODIOA** -Hitzak eta musika : ezezaguna-

Amodioa zoin den zoroa

mundo guziak badaki.

Nik maiteño bat izaki eta

beste batek eramaki,  
Jainko maiteak gerta dezala  
enekin baino hobeki.

Azken bestetan egin nituen  
izarraren ezagutzak;  
denen artetik ageri ziren  
haren begi urdin-beltzak;  
irri polit bat egin baitzautan,  
piztu zauztan esperantzak.

Geroztik ere mintzatu gira,  
eia nahi ninduenez...  
Harek bietan baietz erranik,  
pentsa kontentu nintzanez!  
ez nuen uste haren agintza  
betea zela gezurrez.

Orai bihotza urtua daukat  
gatza urean bezala;  
izar onaren argien ordain  
izigarriko itzala!  
ohoin txar batek hartu daut eta

nola naiteke kontsola! (*izar onaren ...*)

**ANDRE MADALEN**

Hitzak eta musika : ezezaguna

Andre Madalen, Andre Madalen,  
laurden erdi bat olio,  
aitak saria ekarritzean amak ordainduko dio.  
Amak ordaintzen ez baldin ba'io,  
aitak ordainduko dio;  
aitak ordaintzen ez baldin ba'io,  
hor konpon eta adio.

**ANDROKANTO** -Hitzak: B. Gandiaga. Mus: Oskarbi-

Entzun nahi duenentzat hamalau Gorkaren  
Gorkaren irudiak salatzen  
Hamalau atetikan karrasi,  
hamalau harri ixil bilutsik  
Harriaren hutsetik oihuka,  
harriaren tartetik kantari  
Nora zoazte gogorrak, oharrak a'itu gabe?.  
Orain bertan bota det altzairuzko zintzela  
kantu zaharren baimena.

Hau gure herri maitea, hau gure herri torpea,  
barr – barren daukaguna;  
hemen geldituko naiz aldi luze ilun hontan.  
Burni harri herria Aloñako irudiak  
biltzar baten josiak.  
Galtzen badegu Euskera Ama goi – mendikoa,  
galdu degu estiloa;  
noiz arte dago Jonas balearen sabel(e)an.  
Entzun nahi duenentzat ...  
Harri kanta isilean goien dira oihuka  
hamalau igarleak.  
Androkanto y sigo kantan  
ballet baten kantata ilbeltzaren egun bat  
ballet bat dantzatzeko hamalau atetikan.  
Entzun nahi duenentzat ....  
Hartu behar det zintzela  
kantu zaharren baimena noiz arte ez dakiat.  
Hau gure herri maitea hau gure herri torpea  
gaur ez da igandea ezta ere osteguna  
udaberri atsaldean.  
Noiz arte, noiz arte, noiz arte lo zorroan?  
Noiz arte iji – ajan? ( *bis* )  
Nortasuna galduta?



Ez degu behine' ikasten Arima malda beheran,  
Arima behin galduta Nor gera Euskaldunak?

### **ANTTONI ETA ANTTON**

Hitzak eta musika: Nemesio Etxaniz

♂: Anttoni, Anttoni! zure atean nago ni.

♀: Ai, Antton, ai, Antton! ate ondoan hor konpon!

♂: Hormatxoriak negu gorrian ez du atsegin elurra;  
zerua goibel, kabia hotza, ta janari gabe lurra  
Ai, maite, nere bihotzak duan zure hotzaren bildurra!  
biontzat kabi bat berotzeko bilduko nuke egurra.

*(Anttoni, Antt...)*

♀: Enarak ez du behin egindako kabirik inoiz aldatzen;  
urtero beti kabi haretan umeak ditu bazkatzen  
Baina zu Antton, enara txarra zaitut neretzat bilatzen;  
jai bakoitzean neska berria ikuste zaitut maitatzen.

*(Anttoni, Antt...)*

♂: Enarak ere bere kabia galduta badu ikusten,  
biderik gabe, haruntz ta honuntz kabitik du aldegiten.  
Egarri dagon nere bihotza zuk eman ezik edaten  
berriro ere ibiliko da gogorik gabe nunbaiten.

*(Anttoni, Antt...)*

♀: Zure bihotza egarri dala, esan didazu bertsotan;

neronek ongi ikasia det arrazoi dezula hortan;  
zu beti zabiltz edari bila, ikusi zaitut askotan:  
baina neurriz gain egarri hori itotzen dezu ardotan.

♂: Anttoni, Anttoni, kalabaza zale ez naiz ni.

♀: Ai, Antton; ai, Antton, haize preskuari gabon

### **ARBOLA GINEAN (LABORARI)**

Hitzak eta musika: Beñat Sarasola - Pier Paul Bertzaitz

Arbola Ginean xoria da kantatzen  
Kantatzen da eta bazterrak inarosten  
Inarrosi eta hostoa da erortzen  
Euskal bihotza da bilaiz egoiten.  
Bilaizi ondoan han dira errabian  
Xiloka beltzean handik elki nahian  
Handik elki eta kantatzerat abian  
Lagun zonbait bidian ikusiko agian. (*Handik ...*)  
Laaaa, lara, lara, lara...  
Goiz argi eder bat beti jeikitzen nunbait  
Nunbait jeiki eta zorionean zonbait  
Bizi hobeago denek dukete gogo  
Bainan bakarrik ezin egin asmo.  
Haur baten sortzeko sofritze beharrezko  
Bizi hobetzeko legeen bihurtzeko

Nor da abiatzen lagun zombaiten biltzen  
Herriari salbatzen herioari kentzen. (*Nor da ...*)  
Laaaa, lara, lara, lara...  
Gaur Euskal Herrian zühaina da landatzen  
Landatzen da eta gero früitu ekartzen  
Früitu ekar eta auzoa da kexatzen  
Iraultzalaria madarikatzen.  
Jar giten ildoan igeri izerdian  
Izerdian eta lepo zainak hegian  
Besoez ta botzez hortzez eta haginez  
Lagün bat zorionez ikusiko dügünez. (*Bes...*)  
Laaaa, lara, lara, lara...

**ARDIAK LERRO LERRO: EEB... (Em)**  
**(ASTIRIA MENDIAN)**

Hitzak eta musika: M. PAGOLA

Ardiak lerro lerro mendi maldan doatzi  
Haize firfira batek deituz gorago beti  
Ibai zola erreketan denak lotan sartzen dira  
Zoin amultsua zautan gaua jausten mendira.  
La, la, la...  
Egunaz ixil bazen gauaz pizten mendia  
Belar punta bakotxak nasai dakar bizia

Gaztain ondota kukuak joiten dauku soinua  
Eta izarrekilan pestan dugu zerua.

La, la, la...

Oroituko naiz beti Arradoiko bazterrez  
Horrarat so gelditu bainaiz maiz bi begiez  
Baina orain ezin dut Zangorlk hor finkatu  
Bizi bihurri hunek bainau hortik urundu.  
La, la, la...

### **ARGIA DELA DIOZU**

Argia dela diozu, gau erdi oraino ez duzu;  
Enekilako denbora luze iduritzen zauzu;  
Amodiorik ez duzu, orai zaitut ezagutu.

Ofizialetan deia, zure sineste guzia?  
Aitak eta amak ere hala dute gutizia;  
Lehen bat et'orai bertzea:  
oi, hau penaren tristia!

Otea lili denean, xoria haren gainean;  
Hura joiten airean berak plazer duenian:  
Zur'eta ner'amodioa hala dabila munduan.

Partitu nintzan herritik, bihotza alegerarik;  
Arribatu nintzan herrian, nigarra nuen begian:  
Har nezazu sahetsean, bizi naizeno munduian

### **ARI NAIZELA**

Hitzak: Pello Errota eta Txirrita

Ari naizela ari naizela, hor ikusten det Txirrita,  
eta zein ez da harrituko gaur, gizon hori ikusita:  
dudarik gabe egina dio andregaiari bisita,  
oso dotore etorri zaigu bi alkandora jantzita.

Hauxen da lotsa eman didana  
lagunartera sartuta  
edozer gauza esaten degu  
ardo tantakin poztuta;  
bi alkandora ekarri ditut, bat erastia ah'ztuta  
Pellok bi nola jantziko ditu  
bat besterikan ez du'ta.

## **ARRAINAK EIJER BEGIAK** -herr.-

Arrainak eijer begiak, oi neskatila falsia  
Txoriño batek erran zereitan, biga bostetan egia  
Biga bostetan egia, zü etzanela enia. (bis)  
Goiti eta beheiti, banabilazü ni beti  
Libertitzen ere nüzü, ene gazte lagüneki  
Ene gazte lagüneki, nahiagorik zureki. (bis)  
Arren zihauri emeki, emeki eta segretki  
Gai huntan nahi dereizüt, nihaurek borta ideki  
Borta nihaurek ideki, libertitzeko zureki. (bis)  
Erbia dua lasterrez, ihizlarien beldürrez  
Herri huntako neska gazteak, hurtürik dirade nigarrez  
Hurtürik dirade nigarrez, ezkunt ez direla beldürrez.  
(bis)

## **ARRANTZALEAK**

Gu gira gu eskual kantari tropa bat  
Izendatu arrantzaleak  
Maite dugu eskual kantua eta arno gorria.

Arrantzaleak gire bai donibandarrak

Itsasoa da gure ama  
Ziburutarrak gire bai marinel seme  
Guk itsasoa dugu maite.

Gure arbasoak joan ziren bezala  
Behar dugu abiatu  
Bainan aldiz ez arrantzarat  
Egun behar dugu kantatu.

Etorri gira zuek alegetzerat  
Bakearen ekartzerat.  
Denek benetan kanta dezagun  
Ez gira gu bat'e ilun.

**ARROSAKO ZOLAN:** BED#EF#G... (Em)  
-Aire Ahizpak-

Arrosako zolan kantu zirimolan  
nahiz eta telebistan ez gaituzten modan,  
euskararen garra, lokarri azkarra,  
gau ilun honetako gure artizarra  
zaz-piehun langilez, sutsu 'ta ekilez  
oraina 'ta geroa ez ditaizke berez,  
kontzertu honen bidez, musika ez tiez,

euskal izen 'ta izana, betikotz bat bitez! (Zaz...)  
koka 'ta hanburgesa, euskaldun baldresa  
gustu - a galtze - a ere zer dugun errexa!  
kendu nahi digute, bihotz ta bertute,  
izaki klonikoak egin na - hi gaituzte  
jo dezagun bada, goraki aldaba  
multinazional hoien herria ez gara,  
bretoi ta kortsikar, kanak 'ta okzitandar  
nor bedera izateko har dezagun indar! (jo d...)  
Munduko herrien 'ta irrati libr'en  
bilgune goxoa guk dug'urtero hemen  
uhainen ildoan, asmoak geroan  
elkarren ezagutza daukagu gogoan,  
munduko erronkak, herrien borrokak  
bildu gara hausteko zapalkuntzen sokak,  
dantza 'ta irria, kantuz ilargia  
gau hontan zoriontsu da Euskal Herria. (mun...)

### **ATARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA:**

CDGF#GED... (GM)

Hitzak eta musika : ezezaguna

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü,  
Atarratzeko Jaunak bata dü galdatü;



Üken dü arrapostü ez direla huntü,  
huntürik direnean, batto ükenen dü.

Portaliala joan zite, ahizpa maitea,  
ingoiti horra düzü Atarratzeko Jauna,  
otoi, erran izozü ni eri nizala,  
zazpi egün hoietan ohean nizala.

Klara, zoaza orai salako leihora,  
iparra ala hegoa denez jakitera,  
iparra balinbada, goraintzi Salari,  
ene korpützaren xerka, jin dadila sarri.

Ama, joanen gira oro elkarreki,  
etxerat jinen zira xangri handireki  
bihotza kargatürik, begiak bustirik,  
eta züre alaba tunban ehortzirik.

Ama, saldü nauzü biga bat bezala,  
bai eta desterratü, oi Espainiala.  
Aita bizi üken banü, ama zü bezala  
enindüzün ezküntüren Atarratzeko Salala.

## AUZOAN ZER BERRI DEN -Herr.-

Auzoan zer berri den, dugun egin kantu  
Zonbaitenberriekin, nola ez harritu  
Andrea erori'ta, senarrak minartu  
Mixelengo Batitak adarrak baditu. *La la la lala...*

Apeza ari zauku prediku alkitik  
Denak beira gaitzen gormant izaitetik  
Bera nola den bizi jendeak badaki  
Xardina utzi eta tira oilaskotik.

Biden arimatzea hitzeman ondoan  
Gure mera lo dago bertzerik gogoan  
Berak bide ederra badu alartzean  
Betzeak goait daudela zangoak lohian.

Brentsak gure mahatsa zoin untsa tinkatzen  
Ez da jus guti baizik patsean gelditzen  
Perzetura halere brentsari nausitzen  
Gure moltsa guziak osoki tturitzen.

Herriko mutxurdinak ele eta ele

Mezatic jali-ordu jenden jorrazale  
Nehork ez galdaturik hain ziren tetele  
Mendekatzen dirade pika eta bele.

Ez naiz haien pare guhaur bilakatu  
Hobeko dugu orai ixilik gelditu  
Ez dugu ez gezurrik kantuan sakatu  
Bainan egiak ere mugak behar ditu. *La la la lala ...*

### **AXURI BELTZA**

Axuri beltza ona duk baina  
xuria berriz hobea  
dantzan ikasi nahi duen horrek  
nere oinetara begira.

Festan dabilta salto ta brinko  
pozez ertenik plazara  
guk ere parte hartu nahi degu  
eta bagoaz dantzara.

Aupa mutilak, aupa neskatxak  
baztertu barruko lotsa

alaitasunez poztu ditzagun  
gorputza eta bihotza.

## **AZKEN AGURRAREN NEGARRA**

Hitzak eta musika: Gorka Knörr

Nora zoaz eskual semea, harma hori eskutan?  
Harmen hartzera deitzen naute,  
frantsen aldera  
Eskualeritik urrunduz, 'ta atzerrira joanak,  
a ze negarra entzunen duzun Eskualerrietan!

*Morst pour la patrie, morts pour la patrie,  
eskuara baizik etzakiten haiek,  
morts pour la patrie.*

Gure historian zehar, zenbat malko ta ezbehar;  
Landetaratu gindutenekila dugu orai hil behar.  
bere ama agurtu du, etxolako atarian,  
bere amak bisitatuko du atzerriko hilobian.  
(*Morts pour la patrie...*)

**AZKEN DANTZA HAU: EEF#G#F#... (AM)**

Hitzak: Manex Pagola, 1965

U, u, u, (...) Azken dantza hau, maitea zurekin  
Nahi zintuzket ereman nerekin.  
bainan gaurko xedea, ezin daike betea  
Badakit nik ere bihar dela joatea!

*Bego pena hau, itzuliren naiz*

*bai berriz Euskal Herrira.*

*Bego urte hau, etorriko naiz*

*betikotz zure ondora.*

*U, u, u, u...*

Azken dantza hau, ez da sekulako

Zin egina dut, zin egin betiko.

Hemen, gure lurrean, bizi behar dudala!

Hori ez bada, hilotz jar nadila! (*Bego pen...*)(*U,u,...*)

**BAGARE: BEGBGA... (Em)**

-Hitzak: Bittor Kapanaga Musika: Gontzal Mendibil & Xeberri-

*Araban bagare, Gipuzkun bagera  
Ziberun bagire 'ta Bizkaian bagara, (Araban ...)  
baita ere Lapurdi 'ta Nafarran.*

Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara  
nahiz eta hitz ezberdinez,  
bat bera dugu hizkera. (*Guztiok ...*)  
(*Araban ...*)

Herri bat dugu osatzen, eta gure zabarkeriz  
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera, bagire, bagara,  
euskara azkartzeko oraintxe dugu aukera.

Bagare, bagera, bagire, bagara  
Euskadi askatzeko oraintxe dugu aukera.

(*Araban bagare...*)

**BAI EUSKARARI -T. Monzon-**

*Eta bai, eta bai, nik Euskarari bai 'ta bai.*

Uso zuria, uso gorria, dantzan dabil suaren gain.

Uso gorria, uso zuria, Herriak Euskarari Bai.

Neure kabia daukat garretan,  
neure umeak neure zain, nago odoletan, garretan,  
txinparta gainetan, neure umeak neure zain.

Uso zuria aurkitu dute, hotzazdardaraz erdi hila.  
Uso gorria garretan dator, Euskal Herriaren bila.  
Uso zuria lehengoa duzu,, uso gorria geroa,  
Euskal Herritik uso bakar bat, eguzki aldera doa.

San Juan loreak usaina duteeta herriek arima,  
Euskal Herria Euskara barik, irin gabeko ogia.  
Euskal Herria Euskara gabe, hegal gabeko usoa,  
uso gaztea aidatu hadi, eta eguzkiraino hoa.  
(*Eta bai, eta bai, nik ... , ...*)

### **BAIONAKO PESTALIER**

Baionako pestalier, hiru musu eman eta etxekoer  
Hoa bringo Baionako pestalier  
Zaldun xuri Leon Erregeri esker  
Puzuluan ez duk nehor ez 'ta ezer  
Bost gau eta bost egunez hihauren ber  
Pestalier ez hadila egon alfer

Fiidelik, Baionako ohiturer, ihardokiz, loale gaixtoer  
Egarri latzer, etxeateko deier, eta, Miarriztarrer.

### **BAKE MINA**

Hitzak: Peio Ospital

Musika: Irlandar herrikoia

Gizadiak maite-mina, izadiak arreta-mina,  
Etorkinak herri-mina, herri hunek bake-mina.

Laborari ta langile, sinestedun ta bilatzaile,  
Bidez-bide, kalez-kale, izan gaiten bakegile.

Zatiketak etsipena, elkarketak itxaropena,  
Gorritoak pairamena, barkamenak askapena.

Solasbide, elkarbide, maitabide 'ta askabide,  
Zuzenbide, bakebide, oro dire zorionbide.

### **BALDORBA**

-Hitzak: J.A. Urbeltz Musika: Benito Lertxundi-

Ezkil gabeko elizen eremu emankorra,  
giza murzuriko zure ardientzat.



Oi Baldorba, oi Baldorba, eguzki eta haize idor,  
mahats-ardo ibai, galburuarena.

Lur gorri, harri landu, mailu eta zizelaren kantu,  
kitarrazko alakiketan, Armeniako kanun,  
ahots urratuan.

Oi Baldorba, oi Baldorba,  
esazu nor zen bidetik  
baztertu zintuen madarikatua.

Zure irriño romanikoa, erdi izoztu eta leloturik  
utzi zuen madarikatuaren izena nahi dut (*ize...*)

Oi Baldorba, oi Baldorba, esazu nor zen bidetik  
baztertu zintuen madarikatua.

Oi Baldorba, zutaz oroit eta zuri nagozu (*zur...*)

Kantu bat laburra da eta Pentsa zuk,

Esaten ez dizudan hartaz.

Oi Baldorba, oi Baldorba, esazu nor zen bidetik  
baztertu zintuen madarikatua.

**BALE IHIZI** -Cazenave, Cardie-Eiherabide, Ducau-

Ni itsas xoria banitz, iparreko izotz lurretarat  
Joan nintaike hegaldaka, bale itsu gizenen ondotik.

Itsasoa harro dago, haizeak oro tzarrean

Eta gu ezin kontsola, etxe goxoa gogoan harturik.

Zoin asto izan behar den, hala guziz miserian bizi  
Untzirat iragaiteko, bale bakartiaren hiltzaile.

Sos poxika batengatik, zonbat arriskurik ez den  
Ur untzia uzkeilirik, buztan hasarretuak leherturik.

Lana gustokoa zaio, arrantzale gai den gazteari  
Bainan ikaretan dago, bale basa hurbiltzen denean.

Lot lanari, erna gaiten, dio kapitaina jaunak  
Marinela eri dago, gorputz arimak errotik daldaran.

Borroka hasten denean, uhain zoroak jauzian gora  
Aberea zaurituta, odol basa zurrutan dario.

Oligo hexur partea, sos guttirekin saritzat  
Moltsa arin itzultzen da, Gaztea Ziburuko tabernarat.

### **BALEAREN BERTSOAK**

Hitzak: ezezaguna - Musika: Benito Lertxundi

Milla bederatziehun'da lenengo urtean,  
maiatzaren hamalagarren egunean,  
Orioko herriko barraren aurrean,

balea agertu zan be'atzik aldean.  
Haundia bazan ere azkarra ibilian,  
buelbaka han zebilen joan da etorrian,  
hondarra arrotuaz murgil igarian,  
zorriak zeuzkan eta haiek bota nahian.  
Ikusi zutenean ala zebilela,  
berehala ju'n ziran treneruen bila,  
arpoi 'ta dinamita eta soka bila,  
aguro ekartzeko ez zan jende hila  
Bost trenero joan ziran patroi banarekin  
mutil bizkor bikainak, guztiz onarekin,  
Manuel Olaizola eta Loidirekin,  
Uranga, Atxaga 'ta Manterolarekin  
Baleak egindako salto ta marruak  
ziran izugarri 'ta ikaratzekuak,  
atzera egin gabe hango arriskuak,  
arpoiakin hil zuten han ziran anguak.  
Bost txalupa jiran da erdian bala,  
gizonak egin zuten bai naiko pelia,  
ikusi zutenian hil edo itua  
legorretikan bazan biba ta txalua.  
Hamabi metro luze gerri' hamar lodi  
buztan palak lau zabal, alboetan pala bi,

ezpainenetan bizarrak beste ilera bi,  
orraziak bezela hain zeuzkan ederki.  
Gorputzez zan mila ta berrehun arrua,  
beste berrehun mingain 'ta tripa barrua,  
gutxi janez ez zego'n batere galdua;  
tiñako sei pesetan izan zan saldua  
Gertatua jarri det egiaren alde,  
hau horrela ez bada jendeari galde,  
bihotzez pozturikan atsegintsu gaude,  
gora oriotarrak esan bildur gabe.

**BARATZE BAT: CFAC... (FM)**

Hitzak eta musika: P. P. Bertzaiz

Hau da egün ederra, mila xoriek kanta  
Tziauri en'erregina, besoak zuri dititzüt para.

*Baratze bat nahi deizüt egin  
amets segretüenekilan  
liliak egün jauntsi eijerrenetan  
mila kolorez dantzan bihotzetan (mila ...)*

Gaü beltz 'ta sakonetik, elkitzen nüzü hoztürik  
bihotza hain tristerik

zütaz hainen berantetsitürik (*baratze ...*)  
Karrosa bat hor dügü kanpuan gure aidü'  
ez gal hab'o denbora,  
hiskor beitago amodioa (*baratze ...*)  
Maitarzün berriari, ilargiak dü argi  
emanen deikü aski  
gük alkar maita dezagün beti (*baratze ...*)

## **BASABURÜAN MONTORI**

Basabürüan Montori, han bazen jaun bat beilari  
Arrano beltza üdüri, garaz leihotik eskapi.

Txerkatürik zen aspaldi, eta nihun ez aageri  
Nun ote zen gizon hori, orai jenteak badaki.  
(*Basab...*)

Kanberan debeatürik, oskiak etxen ütziarik  
Hegaldatü zen ixilik, leihotik jauzi eginik.  
(*Basab...*)

Hotza senditü beitzian, agertü zen ostaatüan  
Bellopilat jun na - hi – an, erori zen ifernüan.  
(*Basab...*)

Erraiten die gisala, ordüan izertüü zela

Hütsik beitzian sakola, ezin edan kokakola.

*(Basab...)*

Hantik elki behar üken, segür uste benoo lehen

Untsa lagüntürik beitzen, idajez abiatü zen.

*(Basab...)*

Montura txar bat ez aski, aidian behar iibili

Egüberritan zen jaitxi, Papa Noëlek ekarri.

*(Basab...)*

Ixtoria hortan zen batü, geroztik fama heedatü

Montorik ez ote dütü, üskaldün zonbait salbatü.

*(Basab.)*

## **BASOA MAREA BEHERA**

Basoa marea behera, Poissenerie-n peti gora

Ezin naiz nihundik atera, goaitatzeko marea gora

Basoa dut marea behera, Pannecau-ko itsasora

Ixurgiak narama, arnoan undarra...itotzera.

## **BEDATSEAN**

Bedatsean dirade zühainak loratzen

Udan ekiarekin bazterrak berotzen

Larrazkenean aldiz egünak llaburtzen  
Negüan haize hotza hezurretan sartzen.

*Ez gal gure odol beroa  
Bizi bedi gure Xiberoa.*

Aspaldian bizi da gure popülia  
Zazpi probintzietan oso berexia  
Kantore zahar eta jauzi emailia  
Xoriñoa bezala txülüla joilia. *(Ez gal ...)*  
Jendek erraiten die mündüan gisala  
Hau bezalako lekü ejerrik ez dela  
Bena gure xokua hüsten ari dela  
Eta segür hiltzeko pündian girela. *(Ez gal ...)*  
Tristeziatz besterik behar dügü heben  
Bizitzeko lotsarik ez dezagün üken  
Oi Xibero maitea ez zira galdüren  
Zure semek zütie bihar salbatüren. *(Ez gal ...)*

**BEDATSEAREN HELTZEAN** -Etxahun Iruri.-R. Idiart-

**Bedatsearen heltzean**  
bazterrak dirade **betatzen lorez,**

Bortüetan ere ola sariak nula beztitzen **belarrez**.  
Artzainak gü, goizaldi eder batez  
Gora bürüz baguatza **plazerrez**  
Gure ardi salduk aitzin **otsamanez**  
Üdako **dener** adio erranez.

Artzainek bortü **gainean**  
arresak dütügü **untsa zainkatzen**,  
**Bena bardin** akodinak ütirik  
kantüz girade **jüntatzen**  
Zunbat jente hirian agitzen  
Ezpeitie algar **ezagützen**.  
Gü **aldiz beikira** mendian **laketzen**,  
Zunbat gurekin **adixkidetzen**.

**BEGIAK PARREZ PARREZ:** (F#x3)AF# (DM)

Hitzak eta musika: ezezaguna

Begiak parrez parrez, bihotza negarrez, (*beg...*)  
halaxe joaten nintzan, maitea,  
zugandik dolorez, ai, ai, ai. (*halaxe ...*)  
Xoriñoa kaiolan, egoiten da triste (*Xoriñ...*)  
Ni ere ez naiz, kontsolaturen, zu ikusi arte. (*Ni ere ...*)  
Nere maite pollita, zu nun zira bizi (*Nere mai...*)



Joan den aspaldi, ene maitea, ez zaitut ikusi (*Joa...*)  
Ama zureak neri, parean pasata, (*Ama ...*)  
ez dit agurrik egin, maitea,  
burua jirata, ai, ai, ai. (*ez dit...*)  
Ama zureak neri ez agur e'iteko (*ama ...*)  
zer palazio dauka, maitea,  
zuri emateko, ai, ai, ai. (*zer pa...*)  
Palazio eder bat, haitzaren gainean (*palaz...*)  
ez da euririk sartzen, maitea,  
ari ez dunean, ai, ai, ai.  
ez da haizerik sartzen, maitea, ez dabilenean.  
Arrosarikan ez da arantzarik gabe (*Arrosari...*)  
Ez eta ere, amodiorik, penarikan gabe. (*Ez eta...*)  
Trai lara...

### **BEHIN BATEAN LOIOLAN**

Hitzak: Bilintx

Musika: A. Zabalak Juan Mari Lekuonari jaso

Behin batean Loiolan erromeria zan,  
hantxen ikusi nuen neskatxa bat plazan;  
txoria baino ere arinago dantzaz;  
huraxe bai polita han politik bazan!  
Esan nion desio senti nuen gisan,

harekin hizketa bat nahi nuela izan;  
erantzun zidan ezik, atsegin har nezan,  
adituko zidala zer nahi nion esan.  
Arkitu ginanian inor gabe jiran,  
koloreak gorritu arazi zizkidan;  
kontatuko dizuet guztia segidan,  
zer esan nion eta nola erantzun zidan.  
Dama polita zera polita guztiz ai!  
baina, halaere, zaude oraindik ezkongai,  
ezkon gaitezen biok! esan 'zaidazu bai!  
ni zurekin ezkondu? Ni zurekin? Ja-jai.

### **BERETERRETXEN KANTOREA**

Haltzak ez dü bihotzik, ez gaztanberak ezürrik  
enian uste erraiten ziela  
aitunen semek gezürrik.  
Andozeko ibarra, ala ibar lüzea!  
Hirutetan ebaki zaitan  
armarik gabe bihotza.  
Bereteretxek leihoti jaun kunteari goraintzi  
ehün behi bazereitzola  
bere zezena ondoti.

Jaun kunteak ber'hala, traidore batez bezala  
"Bereteretx, aigü bort'ala  
ützüliren hiz ber'hala."  
Ama, indazüt athorra, mentüraz, sekülakua!  
Bizi denak orhit dü  
Bazko biharamena.  
Bereterretx, aigü bort'ala Ama, indazüt athorra  
Büztanobi gaztea,  
ene anaie maitea  
Arreba, hago ixilik ez, othoi, egin nigarrik  
Marisantzen lasterra  
Bostmendietan behera!  
Lakharri Büztanobian sarthü da bi belainak herresia.  
Hik bahiena semerik  
Bereteretxez besterik?  
Ezpeldoi altian dün hilik; abil, eraikan bizirik!  
Ezpeldoiko jentiak, ala sentimendü gabiak,  
hila haiñ hüllan ükhen eta,  
deüsere etzakienak!

## **BERMIOKO PORTUAN** -Hitzak eta musika: ezezaguna-

Bermioko portuan goixeko ordu bijetan (*Ber...*)  
ez da entzuten besterik, (*ez da ...*)  
Txo! atrakaixu batela.

Egije da, egije da neuk ikusiku dalako;  
egije da, egije da, neuk ikusiku da

Lau airoplano pasata,  
bat itsosora jeusi;  
ekarri, Sebastianak (*ekarr...*)  
artzan enkalleta itxi. (*egije da ...*)  
Agostuen hamabijen  
Patxi Bermiora etorri (*Agos...*)  
ekarri katxalotie, (*eka...*)  
puff! Artzan ustelduta itxi. (*egije da ...*)  
El aviador de kakapur  
tambien quería volar (el avia...)  
**etzoitxi** trinkadoriak, (**etzoitxi** ...)  
Barrabaskeij'ein barik. (*egije da...*)

## **BIZI NAIZ MUNDUAN**

Bizi niz mündüan, aspaldi handian,  
beti trixtezian, penak bihotzian.  
Amodiotan nintzan, izar batekilan,  
hura ezin ikus, plazer dudanian  
ez baitut etxian, ez eta herrian. (*Amod...*)  
Aira banindadi, ainara bezala  
Ardura joan naike, maitearengana.  
Ene pena xangrinen, hari erraitera,  
Bai eta doloren hari salatzera  
Aitaren ixilik, solas egitera. (*Ene pena ...*)

Izan niz Barkoxen, kusiaren etxen,  
ahuntz-jaki jaten, segur ona baitzen,  
kostaletak errerik, bihia egosirik  
ogia muflerik, arnoa gozorik:  
han ez zen eskasik, maitea, zü baizik (*Kostale...*)

## ***BIZKAIA, GIPUZKOA...: HONDARRABIA***

## **BIZKAIA MAITE**

Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua  
liran, sendo, eder  
nere gogoaren ertzatik pasatzen  
zure usain goxoa, lana, amodioa, itsasoa  
nere baitan sartzen.

**Atzo goizean entzun nuen**  
zure berbaren oihartzuna  
zure kantaren fereka, bihotzean kilika  
eta ohiartzunaren haunditasunean, murgilduz  
joan nintzen jauzika, hegaka.

Bart **arratsean** arbasoen baratzaren ondoan  
bertsotan eta dantzan lotu zinen, alai,  
piper eta gatza sabel emankorra.

Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua

olerkari penatuaren gozo eta mina  
amodio eta kanta, zure berba lehun  
zure gatzaren bizia zure burdinaren gorria  
dira gaur neretzat aterbe.

Bizkaia maite atzo goizean ikusi zindudan  
soineko zuriz jantzia buruan orlegi  
bihotzean sua, lirain, sendo, eder.

### **BOGA-BOGA**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Boga, boga, marinela, marinela  
joan behar degu urrutira, urrutira.  
Bai, Indietara! Bai, Indietara!  
Ez det, ez det nik ikusiko  
zure plai ederra, plai ederra.  
Agur, agur Ondarroako itsaso bazterra.  
Agur, agur Ondarroako itsaso bazterra.  
Marinela, boga, marinela.

## **BONETA ETA TXAPELA: A(Dx3)C#DE (DM)**

Iragan egün batez egin dūgū irri ;  
Hortaz na - hi deiziet eman zerbait berri:  
Parisetik jin zaikū bidajez Phetiri,  
Urte bakotx fortūna eginik ūdūri.

Agur, eta zertan hiz, Phetiri gaizua ?  
Ene haur denborako kantūko aizua !  
Iragan dūk ordūnko denbora gozua,  
Eta hi aberastū, ezpehiz zozua !

Parisetik horra nūk zien ikustera,  
Han untsa bizi gūtūk, adixkide Pierra,  
Hiaurrek ikusten dūk egin dīat afera,  
Txapela ezarri dīat būrūtik behera.

Txapela badūk bena arin barnekua :  
Nun ūtzi dūk boneta Uxkal-herrikua ?  
Txapel horrek eztereik edertzen kaskua :  
Basta ederra gatik, asto dūk astua.

Ez nūk ez hi bezala lanean akitzen



Lan anplexagorik dük hirian agitzen  
Ene alde hasi nük Parisen bizitzen  
Arrüaren xokoan oskien argitzen.

Ofizio ederra oski argitzale  
Har ezak emaztea ziraje saltzaile  
Haurrak jinen zaitzie gose-bazkazale  
Ütziren dük Parise ahal bezain zale.

Ni ja na - hi nük egon boneta kaskoan  
Ene sor lekü maite Üskal Herrikoan  
Ihurke jakin gabe zer dudan gogoan  
Kobla zonbaiten huntzen... Sütondo xokoan.  
(*Ihurke ...*)

### **BORTÜAN AHÜZKI**

Bortüan ahüzki, hur hunak osoki;  
Neskatila eijerrak han dira ageri;  
Hirur badirade, oi! bena xarmantik,  
Basa-nabarr'orotan ez düte parerik.

Neskatila eijerra, oi begi ñabarra,

Nuntik jin izan zira bortü gain huntara?  
Garaziko aldetik desir nian bezala,  
Ahüzkik'ütürrila hur fresken hartzera?

Goizetan eder dizü ekiak leinhürü,  
Mündü'argitzen dizü üngürü üngüru;  
Ni ere zur unduan hala nabilazü:  
Eia maite naizünez, otoi, erradazü!

—Maitatü züntüdala badizü aspaldi,  
Ezpenereizün erran orano zühauri:  
Bihotzean edüki pena handireki,  
Zühauri erraitera oi! ezin atrebi!

—Disimüla ezazü ahalaz lüzazki,  
Maite ükenen zütüt nik hargatik beti;  
Maite ükenen zütüt nik hargatik beti,  
Gero izanen gira biak alkarreki.

Adio Ahüzki eta Nabolegi,  
Dolü egiten deiziet Lakhasorhoreki;  
Goraintzi erran izozie Ziprian Phinori,  
Mil'esker derogüla haren karesari.

## **BORTÜETAKO ELÜRRA** (Etxahun Iruri-Herr.)

*Rialala...*

Bortüetako elürra osoki ari beita urtzen  
Primaderako txoriak hasiz geroztik han kantatzen  
Denbora ederrer bürüz artzainak gira partitzen  
Nor gure ardi saldoekin  
Belar püntaren ontsa txerkatzen (bis)

Bortüko bidea beita bai segur aski penagarri  
Baratx-baratxa juraiten gira oi, denak kurajez beterik  
Zonbat historia kontatüz erriz batak besteari  
Xahako bürü gorritik trago zonbait üsü tiratürik (bis)

## **BRODATZEN ARI NINTZEN / NESKATXA ONTZIRATUA**

Brodatzen ari nintzen, ene salan jarririk;  
Aire bat entzun nuen itsasoko aldetik;  
Itsasoko aldetik, untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik, jin nintzen amagana:

Hean jaliko nintzen gibealeko leihora  
gibealeko leihora, itsasoko aldera

Bai habil, haurra habil, erran kapitainari  
jin dadin afaitera, hemen deskantsatsera  
hemen deskantsatsera, salaren ikustera.

Jaun kapitaina, amak, igortzen nau zugana  
Jin zaiten afaitera t'hantxe) deskantsatzera,  
hortxe deskantsatzera, salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta igaiten da untzira,  
han emaiten diote lo belharra papra  
eta untzi handian lo dago gaixo haurra.

Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna?  
Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura.  
hartu nauzun lekura, aita-amen gortera.

Andre gazte xarmanta, hori ezin egina,  
hiru ehun lekutan joanak gira aintzina...  
Ene meneko zira, orai duzu orena...

Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata  
bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera!...  
Aldiz haren arima hegaldaka zerura!

Hiru ehun lekutan dago itsas lehihorra:  
Oi Ama Anderea, so egizu leihora...  
Zur alaba gaixoa, uhinak darabila.

**DAMA GAZTE XARMANT BAT:**  
**DGGBGAG... (GM)**

Dama gazte xarmant bat jiten zaut bistara  
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra!  
Ama batek hazteko, hori zerbait bada.  
Gure salbatzaileak kontserba dezala!  
Trala, tralara, tralara, kontserba dezala!

Gau on gizon gaztea, konpainiarekin!  
Gostu du egoiteak instant bat zurekin;  
Badakizu mintzatzan errespeturekin,  
Jainkoak har zitzala hil-ondoan berekin!  
Trala, tralara, tralara, hil-ondoan berekin.

Ene maite polita non ote den bizi,  
Bazinakikea zuk haren zerbait berri?  
Aspaldi ikustera jo-an na-hi-a beti...  
Errozu ene partez, milaka goraintzi.  
Trala, tralara, tralara, milaka goraintzi.

Ez zinueka hobe zuhaurek joaitea,  
Nitaz igorri gabe komisionea?  
Samurturen ote den ez zaitela fida;  
Zato enekin eta, biak joanen gira.  
Trala, tralara, tralara, biak joanen gira.

### **DE TREVILLEREN AZKEN HITZAK**

Hitzak eta musika: Pierre Bordazarre (Etxahun-Iruri)  
De Tréville pastorala

Herio latza hüllantzen ari hiz  
Dolürik gabe orain nitarat  
Otoitzen hait ixtant bat ützi nezak  
Ene azken adiuen egitera.

Hori bera da denen ixtoria  
Herioak bardintzen handi txipiak  
Zeren ilüsione bat bera da

Lürren gaineko gure pasajia.

Ene jauregi paregabekoa  
Hi altxatüz banian fiertate  
Hitan igaran, denbora goxoa  
Hain llabür nükiala ez nian uste. (*Hori be...*)

O Basabürü amiragarria  
Bortüz 'ta mendiz üngüratürik  
Bostetan begixtatü zütiet  
Ürgüllürekin terraza huntarik. (*Hori be...*)

Adios arren Marie-Maidalena  
Zük ingana nezazü lotarik  
Ene ondotik baratzen direnez  
Izan ez nadiala ahatzerik. (*Hori be...*)

### **DILIN DALAN (EZKILAREN KANTUA)**

Gure eliz'dorreko ezkila zaharrak  
badauzka hedaturik berrien bakarrak.

*Dilin, dalan, dalan*

*Din-dan boieran!*

Ene aitatxi zuten noizbait bataiatu,  
ezkil zaharra baitzen alegrantziatu. (*Dilin ...*)

Sortuz geroz gizonak zor du maitatzea,  
bai kartsuki jo zuen haren ezkontzea. (*Dilin ...*)

Bainan ezkil zaharra zertako brandaka  
etsai gaixtoa dator, lot, gizon armaka. (*Dilin ...*)

Arrats hotz latzgarria, ezkil hetsitua,  
aitatxi gorputz da-ta gerla da galdua. (*Dilin ...*)

Bainan ezkila mintzo, xo dezagun adi,  
haur ttipi bat sortu da, azkar bizi bedi! (*Dilin .*)

Kanta beza ezkilak menderen mendetan,  
kanta beza bizia Eskual herrietan! (*Dilin ...*)



**DOALA:** C#DEDC#... (AM) G. Irigoien, J.L. Corrhons

Lehen hatsetik doala, lehen hitzetik euskara  
Lehen harritik ikastola, doala lau haizetara.  
Hazi 'ta irin doala, adinez adin euskara  
Egina egin ikastola, doala lau haizetara.

*Doala, euskara doala, hitzetik hortzera,  
Mundu zabalera.  
Doala, euskara doala, lau haizetara.*

Argi karreun doala, mihian lehun euskara,  
Gure ontasun ikastola, doala lau haizetara.  
Zabal'ta oso doala, lurraren leiho euskara  
Munduari so ikastola, doala lau haizetara. (*Doala..*)  
Nork daki nundik doala, hiri herritik euskara  
Nahikeriatik ikastola, doala lau haizetara  
Baionan bihotz doala, zuhaitz 'ta aihotz euskara  
Egoitzez egoitz ikastola, doala lau haizetara (*Doa..*)

## **DONOSTIAKO HIRU DAMATXO** -Hitzak eta mus.: ezezg.-

Donostiako hiru damatxo  
Errenterian dendari (*Donos...*)  
Josten ere badakite, baina  
ardoa edaten hobeki. (*Eta kris...*)  
ardoa edaten hobeki.

Donostiako Gaztelupeko  
sagardoaren goxoa, (*Donos...*)  
hantxen edaten ari nintzala  
hautsi zitzaidan basoa. (*Eta kris...*)  
basoa kristalezkoa.

Donostiako hiru damatxo  
E'in omen dute apustu. (*Donos...*)  
Zeinek ardo gehiago edanda,  
Zein gutxiago mozkortu. (*Eta kris...*)  
Zein gutxiago mozkortu.

Donostiako hiru damatxo  
Errenteriko kalean. (*Donos...*)  
egunez oso triste ibili,

baina dantzatu gauean. (*Eta kris...*)  
baina dantzatu gauean.

Donostiako neskatxatxoak  
Kalera nahi dutenean: (*Donos...*)  
Ama piperrik ez dago eta  
Banoa salto batean. (*Eta kris...*)  
Banoa salto batean.

Donostiako hiru damatxo  
Hirurak gona gorriak. (*Donos...*)  
Sartutzen dira tabernara 'ta  
Irtetzen dira hordiak (*Eta kris...*)  
Irtetzen dira hordiak.

Donostiako neskatxatxoak  
mandatuen aitzakian, (*Donos...*)  
mutilarekin egoten dira  
kalean jolaskerian. (*Eta kris...*)  
pozez algara haundian.

Arrosatxoak bost hosto ditu,  
Krabelintxoak hamabi, (*Arros...*)

Mari josepa nahi duen horrek  
Eska bihotza amari. (*Eta kris...*)  
Eska bihotza amari.

### **DONOSTIAKO ZIUDADEA**

Hitzak: Pedro M. Otaño

Musika: Joxan Goikoetxea

Donostiako ziuadiala Irutxuloko u...ria,  
etxean zuen perlik onena Jainkoari ixuria.  
Zah'rtzen diranen alaitzailia gazte guzien nobia.  
Zerua zer den ez dakit bainan  
zu zera nere gloria.

Urruti zaude eta zaila da ni zugana iristea.  
Horrenbeste nahi dizun batentzat  
zer bizimodu tristea!  
Alaipide bat bakarra daukat ametsetan sinistea  
Zu ikusteko nonnahi aski det nere begiak ixtea.

**EGUN DA SANTI MAMINA: AAGF#F#.. (DM)**

-Hitzak: G. Aresti - Musika: Mikel Laboa-

*Egun da Santi Mamina, benetan egun samina  
Goiko zeruan gorde dezala luzaro neure arima*

Esanen dizut egia, hau ez da usategia,  
erroi artean izan nintzaden benetan ausartegia  
(*Egun da Santi Mamina...*)

Itsas aldean izarra, hari begira lizarra.

Euskara salbo ikusi arte

ez dut kenduko bizarra(*Egun da Santi M...*)

Kantatu zuen oilarrak, argitzen dira belarrak.

Ageda gure martiriari moztu zizkaten bularrak

(*Egun da Santi Mamina...*)

Bularrak moztu zizkaten

eta Euskal Herriak diotsa

solomu luze dultzerik gabe

eman zaidazu bihotza(*Egun da Santi M...*)

Eman zaidazu bihotza eta

ken, berriz nahigabeak,

esan noiz garen izanen gure

etorkizunen jabeak. (*Egun da Santi M...*)

**EIHA EIHA** -Herrikoia-: GCC... (CM)

Eiha eiha eiha eiha, norbait kanpoan ote da (*Eih..*)  
Langileak, langileak, langileak ote dira?  
Langileak baldin badira barnera sar ditezela (*Lang...*)

**ADD...** (DM)

Eiha, eiha eiha eiha, norbait kanpoan ote da (*Eih...*)  
Nagusiak, nagusiak, nagusiak ote dira?  
Nagusiak baldin badira kanpoan egon ditela. (*Nag...*)

**EKI EDER:** ADFA... (DM)

Hitzak eta musika: Pier Paul Bertzaiz

Udazkenean mendiak, urtxoen eho tokiak  
Sare'ta ihizlariak, alde guzitan gordeak  
Berdin ditugu etsaiak, gordagian jarriak  
Gure seme 'ta alaben... **oi ebasleak.**

*Eki eder sutan bero, Euskaldun bihotzak oro  
Gudukari diten gero, Bilaka gau egunero*

Su pindarraren indarrak

Duelarik sortzen sugarra  
Preso ezarri gatura, nola den amorratua  
Berdin dira euskaldunak, gizonak hoberenak  
baina agertzen zimizta... ziztatu eta.

*(Eki eder sutan bero ...)*

Bururatu da guretzat, ilusi - onen denbora  
Jaun haundi bat Parisetik, jinen zela salbatzera  
Nunbaiteko zeru - etan, balin bada jainkorik  
Guk ez dugu sinetsiko... nagusi denik.

*(Eki eder sutan bero ...)*

## **EÑAUT BIDEGORRI**

Jakin duka berria Eñaut bidegorria hil dela!  
Atzo dena irria, nork erran egun hilen zela!  
Lurreko itzulia, harek egin loreak bezala!

*Etzian aberatsa etzian pobrea...*

*Bainan haren bihotza zer urrezko kalitza!...*

Gurekin herriz herri, pestaz ibili duk frangotan.  
Neskek harentzat begi  
hain zukan trebe fandagoetan!

Oto batek moztu dik,  
Gaixo Eñaut, hogoi urtetan! (*Etzian abe...*)

Adixkide bat zer den  
Nik bihar dut hori jakinen.  
Bihar bakar bakarrik  
Eñaut gabe bainaiz gelditzen,  
Ai! Eñaut adixkide  
hik baninduk hireganatzen. (*Etzian abe...*)

**EPERRA: DGGAB... (GM)**

Hitzak: Jean Louis Davant

Musika: Akelarre

Eperrak badititzü bere bi hegalak  
bai eta bürün gainın kokarda eijer bat  
zük ere balinbazünü gaztetarzün eijer bat  
neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat (*zük...*)

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe  
gaüz ebiltea ez üken herabe  
egünaz ebiltea desohore leike  
txoriak ere oro haier soz dirade (*egünaz ...*)



Ebili izan nüzü gaüz eta beti  
ea atzamanen nianez lili eijer hori.  
Azkenean atzaman düt oi! bena tristeki  
lumarik eijerrena beitzao erori (*Azkene...*)

Mündüan ez da nihur pena'ik gabe bizi  
Nik ere badit aski hoitan segurki  
Nik desiratzen nizün ezkontzea züreki  
Bena ene aitak ez dü entzün nahi hori (*nik ...*)

Zur' aitak zer lüke eni erraiteko  
Ala ez nitzaio aski haren ofizioko  
Ala zü soberaxe zitzaio enetako  
Printzerik ez ahal da orai züenganako (*ala...*)

### **ERREGE LEON**

Baionako errege Leon, gaiten hire zerbitzari on  
Gaiten hire zerbitzari on, bost gau eta egunez on  
Emaiezaguk indar zorion, musika arno omore on  
Musika arno omore on, egin gitzak bestarako leoin  
Baionako errege Leon.

## **ERRIBERA: GCCBC... (CM)**

Hitzak eta musika: Benito Lertxundi

Erribera, erribera! zure landen zabalera  
ortzi-muga den hartan mugatzen da.  
Zure lur emankorretan ixurtzen diren asmoak  
gogotsu hartuko ah'! ditu lur gozoak!  
Zure gaztelu zah'rrek gorderik duten, antzina  
hats tristetan mintzo da haren mina.

Ooo...

Horma zahar arraituetan xoriak dira kantatzen,  
mendetako lo geldia salatzen.

Nafarra anai zaharra,  
kondaidaren lehen sustarra,  
bego higan arbasoen amets hura.

Ooo...

## **ESPUS ESPUSARI TOPA**

Zoinen eijer den bedatsean lehen lilia  
Baratze xokoan ejer ageri  
Zoinen eijer den goizaldi batez jüntatürik  
Bi espus esküak emanik elgarri  
Egünko egünak hortarat ekarri gütü

Ohore espus eta espusari  
Gük bizikotz suhetatzen dereziegü  
Betiko xantza hun et' osagarri.

Espus maiteak orai jakin behar düzüe  
Ziren hunetan zer datin geroa  
Batean plazer bestean aldiz arrenküra  
Uste gabeko nahi gabekoak  
Bena egün danik biga baziratekee  
Ais' egarteko zi, en eskernioak  
Bai eta pekü güzien kontsolagarri  
Egün jüntatü züt, en amodioa

### **EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ:**

DGGAB... (GM)

Hitzak: X. Amuriza

Musika: Oskorri

Euskal herrian euskaraz  
nahi dugu hitz eta jolas,  
lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz,  
bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.  
Zabal bideak eta aireak

gure hizkuntzak har dezan arnas,  
bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskaraz  
hitzegiterik ez bada,  
bota dezagun demokrazia  
zerri-askara;  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.  
Hizkuntza gabe esaidazue  
nola irtengo naizen plazara,  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal herri euskalduna  
irabazteko eguna,  
pazientzia erre aurretik  
behar duguna;  
ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?  
Zer Euskal Herri litzake bere  
hizkuntza ere galtzen duena?

ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?

**EZ, EZ DUT NAHI: F#F#EF#... (DM)**

Hitzak eta musika: Julen Lekuona

*Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez.*

*Ez , holako zibilizaziorik.*

Kaiolaren adarrak ditugu gogoan,  
eskuindarrek eskua zabaldu juxtuan.  
Zigor indarren menpe, tiroak gogoan  
horrela bizitzerik ez dago munduan.

*(Ez, ez dut nahi ...)*

Poliziak nun-nahitik zerbait egitean,  
pentsatu arazi nahi makil indarpean.

Irudi du gerala kaiola batean

jarritako txoriak fusilen menpean.

*(Ez, ez dut nahi ...)*

Horregatik ez dut nahi gizonen kutsurik,

Zibilizazioaren sasi jaungoikorik.

Libre nahi dut bihotzez, libre loturetik

basurdearen gisa hortzak estuturik.

*(Ez, ez dut nahi ...)*

## **EZKILAREN KANTUA: DILIN DALAN**

### **FESTARA**

Hitzak: Jose Bizente Etxagarai (Donostia 1773 - 1855)

Festara, festara, festara.  
Festarik behar bada bego Donostia bai bai  
Betikoa du fama ondo merezia.  
Bestetan ez bezela hemen gaztedia beti  
Amaren sabeletik dator ikasia baiiiiiii  
Trunlalai trunlalai trunlalai trunlalai ...  
Festara, festara, festara.

### **FESTARIK FESTA** -Tapia eta Leturia, Flako Jimenez-

Nahiz gauza asko ezagutu munduan  
Bada zertxobait hartu nahi dut kontuan  
Ez dakit nola esplikatu kantuan  
Neskatxa bat dut hemen nire onduan.

Gure bizitza juerga eta parranda  
Gero egunez lo egiten dugu etzanda  
Horren errudun etsaien bat izan da

Gu non gabiltzan seguru bera han da.

*Festarik festa lan egin behar gauero  
Festarik festa hor nabil ni egunero  
Gure etsaia benetan dago ero  
Zigortzen gaitu inoiz hutseginez gero.*

Aizu neskata ba al dakizu benetan  
Norekin hasi zeran hartu-emanetan?  
Hau da egia ziur zaude horretan  
Bihurtu leike maitasuna penetan.

Konplikazio anitz bada gurekin  
Bizitza honi ezin diogu aldegin  
Nire aukera ez bazaizu atsegin  
Gure artekoa beharko da desegin.

### **FORJARIEN KANTA**

Gaur forjariak lana utzirik  
gatoz guztiok kalera,  
labeak oso itzalduta eta  
protesta bat egitera,

mailu, burdinak bota ditugu  
hantxe bertan bazterrera;  
ez dugu nahi berriro eere  
toki hartara lanera.

Dinbili danba! gau eta goiza,  
su eta keen artean,  
sosegu eta deskantsu gabe  
geure buruen kaltean;  
horrexegatik lanak utzirik  
gatoz guztiok batean.

Gora bai gora beti, gora forjariak!  
langile trebe zintzo da mailukaria.  
Lurpera, bai lurpera beti nagusia!  
ez digute egingo nahi duten guztia.  
Ez badigu ematen arrazoia guri,  
ez badigu ematen behar legez ongi,  
su emango diogu gure fabrikari  
eta nagusiaren etxe guztiari.

Hiru babarrun jateagatik  
horrenbeste neke, pena;



erdi ustelik aurkitzen dute  
forjariaren barrena.  
Gure kontura egiten dute  
nagusiek nahi dutena,  
gure lepotik gizentzen dute  
bere praktikara dena.

Oso goizetik lanean hasi  
su eta keen artean,  
dinbili danba! gelditu gabe  
guztiz ilundu artean,  
arropa denak puskatzen eta  
osasuren kaltean.

Ez badigu guri jornalik haunditzen,  
berriro gu ez gara lanera bihurtzen;  
arrazoiz gehiago badugu eskatzen,  
Ez gaituzte inola hoiek ikaratzen.  
Ez badigu ematen arrazioa guri,  
ez badigu ematen behar legez ongi,  
su emango diogu gure fabrikari  
eta nagusiaren etxe guztiari.

## FURRA FURRA

*Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa  
geure gustokoa.*

Gaur goizean jeiki naiz suerte onean,  
tanke bat topatu dut neure kafesnean;  
ez dakit zer daukagun bake ala gerra  
bainan nik badaezpadan egin dut puzkerra.

*(Furra...)*

Zerbait egitekotan zuzen eta artez  
zorri bat garbitu dut ur pistola batez,  
orain galdurik nago beldurrez beteta  
muniziorik gabe gelditu naiz eta. *(Furra ...)*

Neure arma bakarra dut akordeoia,  
hauspoari eraginez dirudi leoia;  
eskua jaten badit on egin dezaion  
Cervantsei holakorik gertatu zitzaien. *(Furr...)*

Eta orain banoa berriro ohera,  
bila ez badatozkit lolo egitera;

bihar ikusiko da zer dagoen berri,  
jakintsuenak ere ezin du igerri. (*Furra ...*)

## **GAUEZ BAKARDADEAN**

Gauez bakardadean  
egoten naiz ni ez bazaude zu,  
gauez bakardadean  
suak hartzen nau ta behar zaitut,  
zure uretik edan, zure gorputzez ase,  
zure bular leunak laztanez bete.

Etzazu ezetz esan, urduri zabiltz kezkatsu,  
zuk ere arratsean desioz beharko nauzu.

Ilunabarreko bakardadean  
maitatuko zaitut beso artean  
gozatuko zara joku batean,  
eder zabaldurik lore artean.

Zure begi urdinak bi izar galdu izango dira,  
zure bular leunak suak harturik lehertuko dira  
desiozko zeruan 'ta ni zure barruan

gure sua euriak itzali arte.

Etzazu ezetz esan, urduri zabiltz kezkatu,  
zuk ere arratsean desioz beharko nauzu.

Ilunabarreko bakardadean  
maitatuko zaitut beso artean  
gozatuko zara joku batean,  
eder zabaldurik lore artean.

### **GAZTE NAIZ ETA LORIOS**

Gazte naiz eta, lorios, izpiritua kurios.  
Batez agrados, besteaz jelos,  
Mutil gaztekin gau oroz,  
Mutil gaztekin, gau oroz eta  
Nundik naiteke maluros.

Aita et'ama etzaten dira  
Biak ganbera berean.  
Ez dira nitaz anitz oroitzen  
Berak ontsa direnean,  
Jeloskeriarik ez izaiteko

Nik maiteñoaren aldean.

Ate xokoan makila eta  
Leiho azpian zurubi.  
Ene maitea handik sartzen da  
Segetuan prudenki  
Segetuan prudenki eta  
Amak oraino ez daki

### **GAZTELUGATXE**

Seirehun urte inguru  
kosta aldean zen gertatu,  
itsasgizon zahar batek  
behintzat hala zidan kontatu,  
enbat itzelak Gaztelugatxen  
untzi eder bat zuen hondatzen,  
euskaldunontzat barruan  
altxor haundiak ei zekartzan.

Igaz udako goiz batez  
eguzkiaren lehen printzez  
jo nuen itsas barrena

bihotza dardara eginez,  
murgildu nintzen ur gardenetan,  
arakatu ongi hare-haitzetan,  
han zegoen tinkaturik  
goroldioak estalirik.

Indar guztioz bultzatzen  
altxor kutxa zabaldu nuen,  
atzera egin ninduen  
uhin haundia altxatu zen,  
inor ez zapaltzeko gogo,  
zapalduak ez izatekoa,  
hau da gure urguilua  
altxor guztien iturria.

Eta hau hola ez bazan ...

## **GIZON GAZTEAK**

Gizon gazteak ezkontzeko behar ditu lau gauza(G..)  
**Lehen lehenik, iduria, alegera bihotza**  
Dirua **frango sakelan eta bizitzeaz ez lotsa (Leh...)**

Horietarik hiru baditut laugarren dut falta (*Horiet..*)

Bai iduria badut eta alegera bihotza  
**Dirurik ez dut bainan ordainez**  
bizitzeaz ez lotsa ! (*Bai iduria ...*)

Aldiz baditut **hiru tatxa** batto bainuke aski: (*Aldiz ...*)  
**Arno edale** jokolari lanean ez ari nahi  
**Hiru tatxa horiengatik**  
neskatxek **maite naute** ni. (*Ardo edale ...*)

### **GOGOAREN BAITAN: G... (CM)**

Erabaki nuen tinko 'ta fermuki  
Ez zitzaidala gertatuko  
Maitasun saretan ez nintzela berriz  
Ustegabeen eroriko.  
Bi begi izpitsu irrifar ezti bat  
Izan dira ene galtzaile  
Geroztik hor nabil arantzetan dantzan  
Ezinezko amets sortzaile

*Zu hor zaude, dantzan jautzitan  
Zer debru, bada, pasatzen zait  
Gogoaren baitan.*

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke  
Sorgin bat bilaka banedi,  
Ezina egikor aldatzeko aina  
Gezurra bihurtzeko egi.  
Zer den ona edo zer ote den txarra  
Jakin beharko nukelarik  
Sumendi gainean erretzen ari naiz  
Ba al dago irtenbiderik. (*zu hor zaude, ...*)

Geroak zer dakar? Ez dut pentsatu nahi  
Uneak nahi ditut bizi  
Lau egun dira 'ta bi omen lainotsu  
Galtzera ez ditut nahi utzi.  
Hitzaren jokoan, itxura emanaz  
Gorde nahiko nuke dena  
Biluzia nauzu izan zarelako  
Egoera hunen sormena. (*zu hor zaude, ...*)

### **GORA 'TA GORA BETI**

*Gora 'ta gora beti, haik gora Lapurdi!  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.*



Gorantza doa agudo kapitala  
eta Lapurdi beti dago apala,  
aldrebesturik dago mundu zitala,  
konformatzen ez bagara  
ze pekatu mortala! (*Gora 'ta go...*)

Gurea ez da bizi-modu normala  
lurra lantzeko haitzurra eta pala,  
lanaren truke kobratzen erreala.  
Benetan da miserable  
euskaldunon jornala. (*Gora 'ta go...*)

Munduan ezin bizi daiteke hala,  
merkatuetan dena gora doala,  
etxera eta zopa guztiz argala,  
kriseiluen olioia  
ez da postre formala. (*Gora 'ta go...*)

Obrero eta nekazari leiala,  
zuen ez da errenta liberala.  
Diru zikinak putre motzak bezala  
botatzen dizu gainera

hortxe bere itzala. (*Gora 'ta go...*)

Jabeek dute kontzientzi zabala,  
kaskatu dute gure lurren azala,  
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;  
burruka garbian dago  
hori da printzipala. (*Gora 'ta go...*)

**GOIZEAN GOIZ JEIKIRIK: GF#ED... (GM)**

Hitzak: ezezaguna

Musika: Benito Lertxundi

Goizean, goiz jeikirik, argia gaberik,  
urera joan ninduzun, pegarra harturik.  
Lai lara larai  
Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik,  
heia nahi nuenez urera lagunik.  
Lai lara larai  
Nik ez nuela nahi urera lagunik,  
aita beha zagola salako leihotik...  
Lai lara larai  
Aita beha zagola, ezetz errangatik,  
pegarra joan zerautan, besotik harturik.

Lai lara larai  
Urera ginenian, biak buruz buru  
galdegin zautan ere “zonbat urthe tuzu?”.  
Lai lara larai  
Hamasei... hamazazpi, orain’ez konplitu:  
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.  
Lai lara larai  
Etxerat itzultzeko, nik dutan beldurra,  
ez jakin nola pentsa amari gezurra!  
Lai lara larai  
-Neskatxa, nahi duzu, nik erakuts zuri,  
etxerat etortzean zer erran amari?  
Lai lara larai  
Urzo xuri pollit bat, gañaz dabilana,  
hark ura zikindurik egotu naiz, ama.  
Lai lara larai  
Dakigunaz geroztik zer erran amari,  
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti!  
Gaitezen liberti!

## **GOIZIAN ARGI HASTIAN**

-Hitzak eta musika: Pierre Bordazarre, «Etxahun Iruri»-

Goizean argi hastian, ene leiho hegian,  
txori bat pausatzen da eta  
goratik hasten kantan.  
Txori eijerra, hain alagera, entzüten haidanian,  
ene bihotzeko trixtüra laster duak aidian (*Tx...*)

Ene txoririk mait'ena, zertaz jin hiz nigana?  
iratzarrazi nialarik ametsik eijerrena.  
Jinik hain goizik, uste hiena baniala anitx pena?  
Ez, ez! Habil konsolatzera  
malerusago dena! (*Jinik ...*)

## **GOIZUETAN**

Hitzak: ezezaguna

Musika: Mikel Laboa

Goizuetan bada gizon bat, deritzen zaio Trabuko,  
hitzak ederrak bihotza paltso, sekula etzaio paltako,  
egin dituan dilijentziak, berari zaizko damuko.

Ongi ongi oroitu hadi, zer egin huen Elaman.

difuntu horrek izatu balu, jarraikilerik Lesakan,  
orain baino leh'n egongo hintzan  
ni orain nagoen atakan.

Nere andreak ekarri zuen, Aranaztikan dotea.  
Hobe zukean ikusi ez balu, Berdabioko atea:  
orain ez zuen hark idukiko, dadukan pesalunbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen  
zeren ez naizen bakarra:  
hazitzekoak or uzten ditut, bi seme 'ta hiru alaba.  
Jaun zerukoak adi dezala, hoi en amaren negarra.

### **GOXO DA BIZITZEA: HONDARRABIA**

### **GREZIAKO ITSAS ONTZIA: EEF#G#... (AM)**

Itsaso gaindik ikusten baduzu  
Gure gogoa daraman ontzia  
Ez zazu pentsa galduta doanik  
Argitzen baitu goizeko eguzkia

Hainbeste amets negar ta desio

Ez du ekaitzak ondora botako  
Salbatuko da goizeko ontzia  
Kaiaren bila hegaka joateko

Arraun berriek eramango dute  
Bide zah'rretik askatasunera  
Oihal zuriek haizea dirudi  
Gure arnasa hiltzen den batean.

Ez du ekaitzak ondora botako  
Salbatuko da goizeko ontzia. (*Itsaso gaind...*)

### **GU GIRA EUSKADIKO (GAZTERI BERRIA)**

Labeguerie

Aita, zer egin duzu gure lur maitea?  
Kanpokoari saldu, ohi dohakabea!  
Arrotzez betea da euskadi guzia,  
euskalduna etxean ez dago na'usia.

*Gu gira Euskadiko, gazteri berria  
Euskadi bakarra da gure aberria (gu gira...)*

Aita, zer egin duzu euskara maitea?

Erderan hazi duzu oi zure semea.  
Ondasun ederrena aita batek galtzea,  
bihotzetan sartua dugu ahalgea. (*gu gira...*)

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,  
baina euskal semea da gure anaia.  
Hemen dela Espainia han dela Frantzia,  
mugaren bi aldetan da Euskal Herria (*gu g...*)

Jaungoikuak emana hor dugu herria,  
bere semeak hiltzera zergatik utzia...  
Bat egin behar dugu Euskadi guztia,  
bildu gaiten, anaiak, gure da bizia! (*gu g...*)

## **GUDARI ESKUALDUNAREN KANTUA**

Labeguerie

Zer duk nigarrez, zer duk hain ilun,  
eskualdun gudari?  
Ator gurekin, pesta duk egun,  
gaitezen liberti.

*Ez, ez, ez naike alai izan ni  
ez baita libro Euskadi,*

*ez baita libro Euskadi. (Ez, ez, ez naike ...)*

Lagunak hilak, gorputz lurpean,  
edo desterruan...  
Gu berriz hemen, bertzen mendean,  
preso gur'etxean... *(Ez, ez, ez naike ...)*

Gauak goiz alba duela ondoko,  
lagun, oroitadi  
luza gabe ziur bai libratuko  
gur' ama Euskadi.

Bai, bai, bai alai izango naiz ni  
libratueta Euskadi, libratueta Euskadi *(Bai ...)*

**GUK EUSKARAZ: CEG (CM)**

Hitzak: G. Aresti - Musika: Urko

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen, *(Eus...)*  
eta zuek, denok, ur gazi bat  
atera zenuten handik nekez. *(eta zuek ...)*

*Guk euskaraz, zuk zergatik ez?(Guk ...)*



Orain zuen birturtez zuen indarrez, (*Orain ...*)  
euskara itsaso urdin eta zabal  
bat izanen da eta gurea da (*eusk...*)

*Guk euskaraz, zuk zergatik ez?(Guk ...)*

### **GURE BIDE GALDUAK**

Hitzak eta musika: Benito Lertxundi

Gu gazteok gaur gabiltza, mundu galdu honetan,  
gerra bat barruan degula, zer egin jakin gabe.  
Gurasoen mundu aldrebek hau, ez dugu onartzen,  
diruaren morroi izaten, erakutsi digute.

Ilunpe horrek bakardade, galduan utzi gaitu;  
argirik gabeko bideak, etorkizunik ez du.  
Bizimodu lasai bategatik, idealak galdu.  
bizitzaren gauza ederrenak, dizkigute zapaldu.

Gizonak kartzelan daude beren herriagatik.  
jainkoak beharko du lagundu, guk ah'ztu baditugu.  
Maitasun hitzak nahi nituzke esan  
baina gaur ezin dut;  
gure bide galduak, kalte hau ekarri dit.

**GURETZAT: ABAF#D (DM)**

Hitzak: G. Aresti - Musika: Oskorri

*Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan giltza eta laia,  
gariz eta burdinaz lantzeko bizkaia.  
Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.*

Gitarrarekin aire berri bat  
daramagu, kantuz egun,  
abesti libre eta leiala, prestu eta noblezadun;  
haren medioz zer garen, ongi  
izan gaitezen ezagun,  
herri langile nekazaria hala defendi dezagun.

*Guretzat ...*

Gure gogoia ez bedi arren  
kantu honekin akaba,  
gure ekintza izan dadila gure hitzaren alaba.

Egun batean esan dezagun  
ez “hala biz” bai “hala da”,  
nekea eta lana dirade zorionaren aldaba.

*Guretzat ...*

Bide honetan baldin bagoaz,  
jakin dezagun zergatik,  
zin egin behar dugu zintzoki,  
bakoitzak duenagatik;  
sinestedunek dudarik gabe  
bere Jaungoikoagatik  
eta sineste gabeek berriz bere ohoreagatik.

*Guretzat ...*

**HABANERA:** (Ex5)FGG... (CM)

Hitzak eta musika: X. Lete

Berrito itzuliko balitz, iragan denbor' arrotza,  
berdin kontsumi nezake bainila gozo artean;  
itsaso urrun batetan irudimena galdurik,  
udaberriko euritan larrosak pizten ikusiz...

Osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan  
pianorik ez zegoen bizi nintzen etxe hartan,  
neskatxen puntilla finak udako arratsaldetan,  
errosario santua neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustoa  
desiozko hotzikaran etsipenaren tamalez.  
Gauak zelatan dakusa kontzientzia biluzik,  
badoaz ordu geldiak gogorapenen hegalez.  
Jaio ginen, bizi gera ez dugu ezer eskatzen  
itsasontzia astiro kariatik ari da urruntzen,  
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan,  
karta bat idatziko dut norbaitek erantzun dezan.

Tabako ron ta kanelaz, girotutako arratsetan,  
algarak entzuten ziren Habanako putetxetan,  
abanikodun mulatak gauari haize egiten  
musiken aire nagiek odola erretzen zuten.  
*(Jaio ginen bizi gera...)*

## HAIL ETXERAT BEREHALA

Hail etxerat berehala

Hau potreta gaizo, Pestalier zozo, xintxikatia eta nola,  
Gau erdi bat baizik, Baionako pestan, iraganikez dukala.

Balantzako hoa, karrika osoa, hiri aski ez zaukala,  
Hire soinekoek, moda baita xutik, atxikitzen hi hautela

Botza duk erdoila, burutik behera, urrintzen duk arroila  
Funtsian ez dikek, hain aspaldi hantik ateratua haizela.

Harrak fite fite kontseilu bat merke, hail etxerat berehala  
Baionan ez baita, pesta egin behar, Akizen bezala (*Aki..*)

## HAURRAK IKASAZUE

Hitzak eta musika: ezezaguna

Haurrak ikasazue euskaraz mintzatzen,  
ongi pilotan eta oneski dantzatzen. (*Haur...*)  
Aire ttun ttikitun, aire ttun laire, ( ... )

Gure kantu xaharrak kontserba ditzagun;  
aire pollitagorik ez da sortu nehun (*Gure k...*)  
(*Aire ttun ...*)

Ez ahantz behin ere sorterri ederra,  
haren mendiak eta itsaso bazterra (*Ez ah...*)  
(*Aire ttun...*)

**HEGOAK (TXORI...):** B(EX6)F#F#G (Em)

Hitzak: Joxean Arze Musika: M. Laboa

Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen,  
ez zuen alde egingo; baina horrela,  
ez zen gehiago txoria izango; (*bainan hor...*)

Eta nik... txoria nuen maite. (*Eta n...*)

Lara-larara-larara...

## **HONDARRABIA**

Goxo da bizitzea Xibero gainian  
Mendi ho'ien artean trankilitatian  
Hargatik aitortzen dit mägaz bestaldian  
Badirela xoko hunak itsas bazterrian  
Kantatzerat banoa huk pentsamentian.

*Hondarrabia ta Donostia ere bai Bilbao  
Eskual Herrian ederrez zidie hain paregabeko*

*Ene bihotza hartü düzie osorik betiko  
Ziek egin batzarri ederra ez dit ahantziko !*

Xokota batetan da fierrik Hondarrabi  
Hurez gerrikatürik, erriz Hendaiari  
Bere gaztelü zahar misteriosareki.  
Lehenago güdüetan nula kolpatürik,  
Santa Maria eliza untarzunez fundi.

Monte Igeldotik zit, agur Donostia !  
Denen artean zira arrosa lilia  
Kontxaren ingürian bipil da herria  
Bere mila kolorekin espantagarria  
Ta erotik Euskaldün da hanko jentia.

**IDUZKI DENEAN: F#F#GF#ED... (DM)**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Iduzki denean, zoin den eder itzala!  
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala:  
egiten duzula mila disimula, inorant zirela;  
erraiten duzula bertzetaik haizela,  
faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,  
erraiten zautala, ez dut bertze maiterik;  
hitzer fidaturik nago tronpaturik,  
gaixoa tristerik; ez dut eiten lorik,  
ez jan edan onik, maitia zuregatik.

Oi! ene maitia, nik ere zuregatik,  
pasatzen dizut, nik zonbeit sabeleko min,  
ezkonduz zurekin, samur ait'amekin  
behar nindeite jin, ez dakit zer egin,  
ez eta nola jin, nik neure etxekoekin.

Oi! ene maitia, nun duzu izpiritua,  
fediaren jabe aita deraukazuia?  
Atxikazu fedia, maita bertutia,  
libra kontzientzia, munduko bizia  
labur da, maitia, ez zaitela kanbia!

### **IKASTOLETAKO ERESERKIA**

*Plazara, euskara plazara!  
euskaldun irakasle eta ikasleok  
dantzara! plazara, dantzara!*



*Geure herriaren geroa bait gara.*

Bai, arreba ta anai, guk ere herria izan nahi,  
geure lurrak laiatuz eta irauliz  
udaberriko emaitzaren zai!  
herri jakintza nahi dugu  
eta jakintza herriarentzat nahi! (*Plazara, ...* )

Ez, erderarik ez! euskadin sortu ginanez  
Denok Euskara bakar bat nahi dugu  
Bizi giro ta jakintza bidez  
Mundu berri bat nahi dugu  
Herri bakoitzat beretik eman ez (*Plazara, ...* )

### **IKUSI MENDIZALEAK**

Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak,  
mendi tontor gainera igo behar dugu.

Ez nekeak, ez da bide txarra;  
gora, gora, neska-mutilak, a, a, a,  
Guk euskaldunak gara, Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean, euskal hurren artean,  
begiak zabaldurik, bihotza erretan.

Hain ederra, hain polita da ta,  
gora, gora Euskal Herria, a, a, a,  
Guk euskaldunak gara,  
Euskal Herrikoak. (*Guk eus...*)

**IKUSI NUENEAN:** (DX4)FEG... (Dm)

Hitzak eta musika: ezezaguna

Ikusi nuenean zure ile latza  
iruditu zitzaidan, maitea, sorginen erratza.  
Ikusi nuenean zure bekokia  
iruditu zitzaidan, maitea, zartag' ipurdia.

*Ai ai, ai, ai, ai, ziri ziri Pedro*  
*Gizonak ez du ondo ematen mozkortu ezker*  
*Ai ai, ai, ai, ai, Pedro ziri ziri*  
*Zertarako ditugu herrian honenbeste hordi.*

Ikusi nuenean nik zure bekaina

iruditu zitzaidan, maitea, gauaren kamaina.  
Ikusi nuenean nik zure begia,  
iruditu zitzaidan, maitea, anpolai gorria. (Ai ...)

Ikusi nuenean zure belarria  
iruditu zitzaidan, maitea, azaren orria.  
Ikusi nuenean nik zure sudurra  
iruditu zitzaidan, maitea, lukainka muturra. (Ai..)

Ikusi nuenean nik zure ahoa  
iruditu zitzaidan, maitea, karobi zuloa.  
Ikusi nuenean nik zure okotza  
iruditu zitzaidan, maitea, gaztaina lokotsa. (Ai..)

Ikusi nuenean nik zure bularra  
iruditu zitzaidan, maitea, basoan txondarra.  
Ikusi nuenean nik zure mokorra  
iruditu zitzaidan, maitea, Azpiroz malkorra. (Ai..)

### **IKUSTEN DUZU GOIZIAN**

Hitzak eta musika: Elisanburu

Ikusten duzu goizean, argia hasten denean,  
menditto baten gainean:

etxe ttipitto aintzin xuri bat  
lau haitz handiren artean,  
iturritto bat aldean, xakur xuri bat atean,  
han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua, maite dut nik sorlekua,  
aiten aitek hautatua.  
Etxetik kanpo zait iruditzen  
nonbait naizela galdua;  
nola han bainaiz sortua,  
han utziko dut mundua,  
galtzen ez badut zentzua.

Etxean ditut nereak, akilo, haitzur, goldeak,  
Uztarri eta hedeak;  
lazko bihiezt, ditut oraino, zoko guziak beteak;  
Nola iragan urteak, emaiten badu bertzeak  
Ez gaitu hilen goseak.

**ILUNTZEAN** -Maixa Eta Itziar-

Ilargia uretan mulgildu da, itsas arrain txikien ondora  
uraren hozkirriaren zirrara, hondar epelaren alboan.

*Iluntzean uraren ertzean errainu baten argia,  
ene maite biok jolasean olatu zipriztin artean.*

Haizeak zimurtu du itsasoa, kresalak lehortu malkoa,  
maite zure zain hementxe naukazu  
izar goiztiarrei begira. (*Iluntzean ...*)

### **IN NOMINE PATRI**

In nomine Patri et Filii.  
Gora jauntzi 'ta duzu erori.  
Zerurat ainitz baitzuen igorri  
laguntza zor ginun Carrerori. (*In nomine ...*)

*Jende lasterkatzaile krudela  
bera die igorri... iup! la-la.  
ainguriak otoituz berehala  
hola hola izorra zedila. Ite misa est.*

Madrilek eta Parisek ere  
bi gauzaren ikastea on dute  
eskualdun ta ttipien zanpatze

ezin da iraun eternitate. (*Madr...*) (*Jend...*)

Goresten haigu, goresten eta  
populiaren makila haiz ta  
hire indarra handia baita  
herria hitaz bozkaritzen da. (*Gores.*) (*Jend...*)

### **INTERNAZIONALA**

Zutik lurrean kondenatu zaren langile tristea,  
nekez ginen elkarganatu indazu albiristea.  
Gertatuak ez du ardura, jende esklabua jeiki,  
aldaketak datoz mundura, nor den herriak badaki.  
Oro gudura ala! Bihar izan dadin  
Internazionala pertsonaren adin.

### **INTXAUSPEKO ALABA DENDARIA**

Intxauspeko alaba dendaria,  
Goizean goizik jostera joaila, (*jost...*)  
Nigarretan (*Nigarr...*) pasatzen du bidia,  
Aprendiza kontsolazalia (*kontso...*)

Zelüan den izarrik ederrena  
Jin balekit argi egitera, (*argi egi...*)  
Joan naite, (*joan n...*) maitiaren ikustera,  
Ene penen hari erraitera. (*hari err...*)

Mündü huntan penarik gabetarik  
Bizitzeko nik eztüt perilik (*nik ez d...*)  
Maitatü düt (*maita...*) ükenen eztüdana,  
Horrek beit'eit bihotzean pena (*bihotz...*)

Maitatü düzüaükenen ez düzüna,  
Horrek d'eizüa bihotzean pena? (*biho...*)  
Mait'ezazü (*mait'...*) üken diokezüna  
'ta joanen da zure bihotz mina (*zure bih...*)

Mertxikaren floriaren ederra!  
Barnean dizü ezürra gogorra (*ezürr...*)  
Gaztea niz, (*gazt...*) bai eta loriusa,  
Ez düt galtzen zure esparantxa (*zure esp...*)

Adios beraz, ene maitea, adios!  
Adios d'eizüt orai sekülakoz (*orai sek...*)  
Ezkont zite (*ezkont z...*) plazer düzünareki,

'ta begira en'arrakuntrüti (*en'arr...*)

Zer izanen da zure arrakuntria?

Zer ahal da zur'egin ahala? (*zur'egin ah...*)

Zerbait kasü (*zerb...*) nitan gertatzen bada

Süjet berri zütan izanen da (*zütan iz...*)

## **IPARRAGIRRE**

Hitzak eta musika: Xenpelar

Iparragirre abila delaaskori diot aditzen,  
eskola ona eta musika, hori hoiekin zerbitzen.

Ni ez nazu ibiltzen kantuz dirua biltzen,  
komeriante moduan...

Debalde festa preparatzen det  
gogua dedan orduan.

Eskola ona esta musika, bertsolaria gainera;  
gu ere zerbait izango gera  
hor'la hornitzen bagera.

Atoz gure kalera, baserritar legera,  
musika hoiek utzita;

Errenterian bizi naiz eta egin zaidazu bisita.



## ISIL-ISILIK

Hitzak eta musika: ezezaguna

Isil-isilik dago kaia berrenean  
ontzi zuri polit bat uraren gainean.  
Goizeko ordu bietan esnatutzen gera  
arrantzaleak beti joateko urrutira  
Pasatzen naizenian zure leihopetik  
nigarra irtetzen zait begi bietatik.  
[ Arrantzalea naiz ta ez daukat dirurik  
hiru alaba dauzkat ezkondu gaberik.  
Laugarrena semea kapote zarrakin,  
konejua dirudi bere bizarrakin. ]  
Zergaitik, zergaitik, zargaitik, zergaitik,  
Zergaitik negar egin?  
Zeruan izarra dago itsaso aldetik.  
Bat, bat, bat Bart parrandan ibili, (*bart ...*)

Bi,bi,bi Ez naiz ondo ibili, (*ez n...*)  
Hiru, hiru, hiru golkoa bete diru, (*golk...*)  
Lau, lau, lau sardina bakalau.  
Anteron txamarrotea, Singerren bibotea,  
Haretzek ez dauka,  
Ez dauka preso tximonoia (*Ante...*)

Hau duk, hau duk, hau duk umorea,  
Kontsolatzeko, kontsolatzeko  
Euskaldun jentea.  
Kalean gora, kalean behera,  
Kalean gora zezena, ... (*kalean g... zezena*)

**ITSAS ONTZI BATEAN: BG#F#A... (EM)**

Kaxiano

Itsas ontzi bate'n Euskal Herritik kanpora  
naramate eta ez dakit nora  
Agur nere ama laztan goxoari  
Agur nere maite pollitari.  
Ez egin negar, etorriko naiz,  
Egunen batez pozez kantari.  
Agur senideak agur lagunari  
Agur Euskal-Herri osoari.  
Ez egin negar, etorriko naiz, egunen batez  
Pozez kantari.  
Gora Euskal-Herri, gora Euskal-Herri  
Gora Euskal Herriari.

## **ITSASOAN URAK HAUNDI DIRE**

Hitzak eta musika: Julen Lekuona

Zazpi senideko famili' batetan  
arotza zen gure aita,  
gure herriko alkate ez izan arren  
lana egiten zuena.

Itsasoan urak haundi dire  
murgildu nahi dutenentzat.  
Gure herriko lanak haundi dire  
astun dire, gogor dire,  
zatiturik daudenentzat.

Markatzen ari diren bide nabarra  
ez da izango guretzat  
lehengo sokari ezarririk datorren  
oztopo bat besterik. (*Itsasoan...*)  
Hainbeste mendetako gure murrontzak  
baditu mila tankera,  
eta zuhur aukeratzen ez badugu  
bertan galduko gera. (*Itsasoan...*)

## ITSASOARI BEGIRA

Zazpi mendeko gauean gaude gure lore eta sasi  
Irrintzi, oihu, ele eta ulu, marmario eta garrasi  
Haize enbata, brisa, galerna, gaur garbi bihar nahasi  
Xake taularen zuri beltzetan,  
**Arrats gozo, egun gazi.**  
Ai itsasorik ez bageneuka zeri so **negarrez hasi.**

Gure **zuhaitza** landatu dugu amildegi muturrean  
Adarrak dauzka **ertzetik haruntz,**  
sustraiak **berriz lurrean**  
Bihotz hesteak estu helduaz esku baten **ahurrean**  
Bertso berriak jartzera noa bere indar laburrean  
Nola **malko** bat isuritzen den itsasoaren **aurrean.**

Nola haizea ur azalean eguzkiaren irteeran  
Nola kaioak zorabioan itsas enbata bezperan  
Pentsatzen nago gu ere berdin ibiltzen ez ote geran  
Susmoa daukat patua bera itsasoan ez ote dan  
Libre 'ta zabal dugu aurrean baina **ezin dugu edan.**

Heldu herria sustraietatik **tira** eta **gora jaso**  
Jarri kantauri aurrean eta **mantendu zutik hari** so  
Ispilu hortan ikus **gaitezen** herriz herri, auzoz auzo

Zauriak gatzaz erre ditzagun malkoak **urez eraso**  
Libre ta zabal irla txiki bat salbatuko da akaso.

Azken arnasa eman nahi nuke eguna hiltzen ari da  
Azken arnasa eman nahi nuke  
bertsoak entzuten dira  
Azken arnasa eman nahi nuke kantari nator herrira  
Azken arnasa ematen degu eguzkitik eguzkira  
Azken arnasa **eman nahi nuke itsasoari begira.**

**ITURINGO AROTZA: AAC#B... (AM)**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Ituringo arotza, Erramun Joakin,  
hasarre omen zaude zeren dugun jakin,  
santurik ez laiteke fiatu zurekin:  
San Kristobal urtuta joareak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:  
“Urtu behar dinagu; ekarran santu hori”.  
“Gizona, zerta zoaz?. Bekatu da hori”.  
“Etzionagu erranen sekulan nihori”.

Ituringo garaile, Ramuntxo Joakin,

hasarre omen zira zeren dudan jakin.  
Konfesa zaite ongi erretorarekin:  
ez dute zer fidatu Santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,  
egoten ah'! zarete hemendik aparte:  
baldin arotz horiek jakiten badute,  
gareen egiteko urtuko zaituzte.

### **IZARREN HAUTSA**

Hitza eta musika: Xabier Lete

Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean  
noizpait ginaden gu ernai.  
Eta horrela bizitzen gera  
sortuz ta sortuz gure aukera  
atsedenik hartu gabe:  
lana eginaz goaz aurrera  
kate horretan denok batera  
gogorki loturik gaude.  
Gizonak badu inguru latz bat  
menperatzeko premia,

burruka hortan bizi da eta  
hori du bere egia.  
Ekin ta ekin bilatzen ditu  
saiatze hortan ezin gelditu,  
jakintza eta argia:  
bide ilunak nekez aurkitu  
lege berriak noizbait erditu  
hortan jokatuz bizia.  
Gizonen lana jakintza dugu;  
ezagutuz aldatzea,  
naturarekin bat izan eta  
harremanetan sartzea.  
Eta indarrak ongi errotuz  
gure sustraiak lurrari lotuz  
bertatikan irautea:  
ezaren gudaz baietza sortuz  
ukazioa legetzat hartuz  
beti aurrera joatea.  
Ez dadukanak ongi ohi daki  
e'ukitzea zer den ona,  
bere premiak bete nahian  
beti bizi da gizona.  
Gu ere zerbait bagera eta

gauden tokitik hemendik bertan  
saia gaitzen ikusten:  
amets eroak baztertuz bertan  
sasi zikinak behingo erreta  
bide on bat aukeratzen.  
Gu sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak  
borroka hor'tan iraungo duten  
zuhaitz ardaska gazteak.  
Beren aukeren jabe eraikiz  
ta erortzean berriro jaikiz  
ibiltzen joanen direnak:  
gertakizunen indar ta argiz  
gure ametsa arrazoi garbiz  
egiaztatuko dutenak.  
Eta ametsa bilakaturik  
egiaren antziduri  
herri zah'r batek bide berritik  
ekingo dio urduri;  
guztian lana guztien esku  
jasoko dute sendo ta prestu,  
beren bizitzen edergai;  
diru zakarrak bihotzik eztu,



lotuko dute gogor ta hestu  
haz ez dadin gizonen gain.

**JAUN BARUAK:** entzuna: CDE... (**CM**)  
(**DM** idatzia)  
Hitzak eta musika: Beñat Mardo (Barkoxe)

Jaun baruak aspaldin xederak hedatü zütin...  
(*Jaun b...*) txori eijer bat hatzaman dizü  
Paueko seroren komentin, (*txori eijer ...*)  
orai harekin biziren düzü  
aspaldian gogun beitzün. (*aspald...*)  
Xedera balitz halako merkatüetan saltzeko, (*Xed...*)  
Xiberoako aitunen semek eros litzazkie oro, (*Xib...*)  
halako txori eijertto zunbaiten atzamaiteko... (*zunb..*)  
Iga'n apirilaren bürüan, armadaren erdian, ... (*Iga...*)  
züntüdan bihotzian, armak oro eskian; (*zünt...*)  
present espiritian, manka besoen artian. (*mank...*)  
Jauna maite banaüzü, erraiten düzün bezala, (*Jau...*)  
kita ezazü, kita ezazü Erregeren zerbütüa, (*kita ...*)  
eta maitia herria, üken dezadan plazerra. (*üken ...*)

## **JEIKI JEIKI**

Aita Donostia

Jeiki, jeiki, etxeoak, argia da zabala (*arg...*)  
Itsasotik minzaten da zilarrezko tronpeta  
Bai eta ere ikarutzen holandresen ibarra (*ho..*)

Zoin eder den mendi goiti basterrak ikustea (*b..*)  
Zelaietan munoetan nun nahi etxe txuriak  
Han eta hemen baratuak itsasoan untziak (*it...*)

## **JERONIMO**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Jeronimo, entzun zazu,  
neskatxarekin ibiltzen zera zu. (*Jer...*)  
Aita datorrenean-ean, ama datorrenean-ean,  
etxetik kanpora bidaliko zaitu (*Aita d...*)

**JOSEBA ELOSEGIRI:** idatzia:GCCC... (**CM**)  
(entzuna: **DM**) Herr. - E. Etxamendi

Lotuz aire zaharrari, dugun kanta pertsu berri  
Joseba Elosegiri (*Joseb...*) gizon miresgarriari.

Ene haur eta ahaide bai eta euskaldun haurride  
Zonbat zaituztedan maite (*zonb... zonb...*)  
Nehoz nehork ez dakike.  
Adios mendi ederrak, oihan ta itsas-bazterrak  
Adios donostiarrak (*adios ... adios ...*)  
Jauntziren ditut sugarrak.  
Arras triste da bizia askatasunik gabia  
Herriarentzat hiltzia (*her...*) nuen nik neure lehia  
Donostiko medikiak, erien sendatzalakiak  
Utz otoi ene zauriak (*utz...*) dagoden oroigarriak  
Ni hiltzen baniz huntarik, ez otoi egin nigarririk  
Ez baitut nigar beharrik (*e.*) ez badut jarraikilerik

### **KALERA BORROKALARI**

Altxa begiak, zabaldu orok, deiadarra lagunari  
berriro izanen gaituk libre  
indar emanaz iraultzari.

Kalera, kalera, borrokalari kalera, (*kal...*)  
hire indarraren beharra diagu  
gure indarrarekin batera (*hire in...*)

Zain dago ama, zain aita, zain andre ta lagunak  
hator, hator Euskadira, hator, hator etxera (z...)  
Ezin gure oihuak isildu, ezin gaituzte zapaldu,  
lagunak non diren badakigu,  
oihuka herria daukagu. (*kalera kalera ...*)

Bultza ta bultza, euskal langile,  
Euskal Herri sufritua  
burni kateak geldi labetan  
danba danba, lurrera gartzelak. (*kalera kale...*)

Luza eskuak indarrik baduk,  
jaikitzeke garaia da;  
herri guztia zuen zain dago  
denok eskuz esku helduta. (*kalera kalera...*)

**KANTA:** AF#EF#G... (DM)  
Michel Mallory – Guillaume Irigoien

**Kanta** hizkuntzaren hatsa  
**Kanta** gure hitzen gatza  
**Kanta** “Guk Euskaraz” ereman urratsa  
**Kanta**, kanta, kanta.  
**Kanta** “Poeten Arima”, kanta arbasoen garima

Kanta eten ez den doinuaren errima,  
Kanta, kanta, kanta.  
Kanta gogootik kaanta.  
Kanta nork bere herria, kanta ikasi berria  
Kanta sustengatzen gaituen giltzarria,  
Kanta, kanta, kanta.  
Kanta bipil edo ezti, kanta goiz ala astiri  
Kanta izaitearen zaurien goxagarri, kanta (x3)  
Kanta gogootik kaanta.  
Kanta, bizia garaile, kanta, geroan ereile  
Kanta eraikitzen ari denaren alde, kanta (x3)  
Kanta gur' erroak hegal  
Kanta botzez mugak estal  
Kanta gurean berme, bester eskuzabal,  
Kanta, kanta, kanta, ( x ... )

## **KANTATUAZ**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Kantatuaz, kantatuaz zorion eta penak,  
kantatuaz sortzen dira gure itxaropenak.

Goizian goiz argiari kantuz dabil txoria,  
udabarriz eguzkiak sortutzen dau loria.

Euskaldunen biotzari zor jako umoria.,  
kantatuaz penak kentzen dator bertsolaria.  
(*Kantatuaz, kantat...*)  
Kaiolako txoritxua, ez al dozu ikusi,  
kantatuaz alaitzen da nahiz eta preso bizi;  
inguruan ikustian hainbeste injustizi,  
kantatuaz joan nahi dot mundu honen igesi

Kantatuaz, kantatuaz nahiz eta bizi preso  
Kantatuaz, kantatuaz nor garan adirazo

Errekatxuak alaitzen nau bere oihartzunez,  
itsasuaren deiari kantari erantzunez;  
gazteriak gizartian jokatzian zentzunez  
kantatuaz nasaitzen da nahiz ta inork entzun ez.  
(*Kantatuaz, kantat...*)

### **KANTATUTZERA NOA ZELEBREKERIAK**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Kantatutzera noa zalebrekeriak,  
ez dira onak baina bai parregarriak,  
berri-berriak;  
neskatxa gazte batek beretzat jarriak.

Galai bat etorri zait larri eta estu  
ohiaren bazterrian egiteko leku  
xirri ta muxu;  
traje baten neurria nahi zidala hartu.

Onean ezin eta gero gogorrear;  
neurtu nahi ninduela luze-laburrean,  
ohearen aurrean;  
orinaez jo nuen kopeta-hezurrean.

Urrikaldu nintzaion ta egin nion kura;  
etxean zen botika; gatzeta eta ura;  
Joxe Bentura;  
ez gehiago etorri nere konbentura.  
Egin badizut ere xirri edo mirri,  
nere kopeta-hezurak pagatu du ongi;  
Joxepa Antoni  
hartzekoak hartuta etxera noa ni.

## **KATTALIN**

-Hitzak: Jon Mirande Musika: "Oh my darling Clementine"-

*Ene maite, ene maite ene maite Kattalin  
sekulako ta betiko galdu zaitut Kattalin.*

Etxe txiki txukun baten zure ait'et'amekin  
zinen bizi, zintzo bizi ene maite Kattalin.

*(Ene maite, ...)*

Baina eder zinen zinez zine izar bat bezin  
ile gorri, baita zorri zuk bazenun Kattalin

*(Ene maite, ...)*

Ibaiera zinen joaten zure ah'te beltzekin  
goiz batean, bat batean ito zinen Kattalin.

*(Ene maite, ...)*

Hilerrian bada lore e'uzki lili, krabelin  
zu zaituzte badut usteongarritzat Kattalin.

*(Ene maite, ...)*

## **KONTRAPAS: (Dx4)C#DEE... (DM)**

-Hitzak: Bernat Etxepare, 1545 - Musika: Xabier Lete-

Garaziko herria benedika dadila (*Garaz...*)  
euskarari eman diobehar zuen tornuia (*eus..*)



Euskara, euskara, jalgi hadi kanpora! (*eus...*)  
Beste jendek uste zuten ezin eskriba zaiteien (*b..*)  
Orain dute forogatu engainatu zirela (*orain ..*)  
Euskara, euskara, jalgi hadi plazara! (*eus...*)  
Bertzeak oro izan dira bere goien gradora (*b..*)  
Orain hura iganen da bertze ororen gainera (*o...*)  
Euskara, euskara, jalgi hadi dantzara! (*eus...*)  
Oraindaino egon bahiz inprimitu bagerik. (*o..*)  
Hi engoitik ebiliren mundu guztietarik. (*hi ...*)  
Euskara, euskara, jalgi hadi kanpora!  
Euskara, euskara, jalgi hadi plazara!  
Euskara, euskara, jalgi hadi dantzara!  
Euskara, euskara, habil mundu guztira!

### **KONTXESIRI**

Hitzak: Juan Inazio Iztueta

Maite bat maitatzen det, maitagarria;  
begi ederra du ta guztiz argia;  
daukat urruti,  
bainan ezin det kendu burutik  
haren itxura;  
saldu al baliteke pisura,  
urrearen truke;

nork erosi faltako ez luke. (*nork*)  
Hogei ta lau legoaz nago aparte;  
bitartean badaukat miloi bat ate,  
guztiak itxirik;  
nahi arren ezin egon ixilik,  
beti negarrez;  
nere maite maitearen galdez;  
ote dan bizi,  
bihotz-bihotzeko ene Kontxesi. (*bih...*)  
Egunaz argi gutxi, gabean ilun;  
kotsuelorik ez da neretzat inun, maitea gabe;  
egin ote nadin haren jabe, oroitutzean,  
zenbat pena nere bihotzean, ditut igaro;  
maite det eta ez da milagro.  
Lehengo gau batean, egin det amets,  
bainan pentsamentuak, beti aldrebes  
irtetzen dira;  
ustez nengoen zuri begira, maite polita,  
kofrearen ginean jarrita, kontu kontari;  
nahi nuen baina ez nintzan ari.  
Esperantzetan bizi, maite gozoa  
noizpait kunplituko da gure plazoa.  
Eta orduan,

gauza txarrik ez hartu buruanleh'ngoia' utzi,  
ez degu pasatzen pena gutxi, preso sei urtez  
onduko gaituzte nere uztez.

## **LAGUN ETOR GUREKIN**

Batez, mendi eta oihanetan  
Pentze eta alorretan  
Bizi nahi dugu gure etxetan  
Batez, laborarien hauzia  
Ezin da irabazian  
Nahi norbaitekin ta nor ez jakin,

Lagun etor gurekin denek elkarrekin  
Ba dugu zer egin  
Gu ez gara lotsatzen etsaia nun hasten  
Han da gudukatzen  
Gure odolez ta ontasunez  
Gure izatez dirade gosez  
Elkartasunez erakuts hortzak  
Elkarri josiz buru gorputzak.

Biez, langile guzien mina

Nagusientzat gaixtagina  
Senda daitekea gure indarrez,  
Biez, nun ez den ari gogorka  
Ezin da egin burruka  
Nahi norbaitekin ta nor ez jakin, (*Lagun ...*)

### **LANGILE BATEN SEMEA**

Hitza eta musika: Xabier Lete

Langile baten semea naiz ni, aita bezela langile,  
eguneroko ahaleginetan, soldata baten egile;  
esku hutsik jaio eta, esku hutsikan nabile,  
puntakoetan, inor etzaigu, gertatu ongile.

Aita ta amak nahiko ninduten, fabrika batean,  
bizitzarekin burrukatzeko, altzairu artean;  
bidetxiurretik noa, agian nere kaltean,  
baina ez det uste nabilenikan, horren apartean.

Izerdi asko ez det ixurtzen, larreko pendizan,  
paper tartean murgildutako, zomorroa izan,  
limosnatik bizi diren, umerzurtz batzuen gisan  
periodikuak ez dira gutaz, mintzatzen Parisan.

Horretan badet bizi geraden, herriaren antza,  
ezintasuna gailendu eta, bakardade latza;  
bihotzeraino sartua, baztertuaren arantza,  
eromen kolpez berpiztu nahirik, gure esperantza.

Gitarra txar bat hartu nuen ta, hemen nabil deman  
euskaldun zaharrak aspalditikan, beti dugun teman;  
ardo mindua edanaz, historiaren tabernan,  
nahiz desapio galanki jaso, bueltan ezin eman.

Hamaika orru ta bertso arrunt, nauzue botia,  
ez da erreza trebe xehetzen, euskaldun otia;  
norbaitek esango balu, hobe nukela joatia,  
neri berdin zait zuek hemen ta, ni hor egotia.

**LAU HAIZETARA** -Hitzak. : M.Arregi Musika : Imanol-

Itsasondoko haize gesala, marinelen bertsoa,  
zoaz urruti aidean;  
lau haizetara (*lau hai...*) Donostiatik Iruñera.

Uzta garaiko gari-usaia, segarien bertsoa,  
zoaz urruti aidean, (*lau ..*) Iruñetikan Baionara.

Ezpain erien portu galdua, maitarien bertsoa  
zoaz urruti aidean, (*lau...*) Baionatik Bitoriara.

Muga zaharrak mahastietan, gaiteroen bertsoa,  
zoaz urruti aidean, (*lau ..*) Bitoriatik Bilbaora.  
Burnizko bihotz arrailatua, gabetuen bertsoa,  
zoaz urruti aidean, (*lau ..*) Bilbaotik Euskal Herrira

**LAU TEILATU:** entzuna: (Gx5)AG... **(CM)**  
(idatzia: **DM**)

Hemen gaude, ta poztutzen naiz  
ta ziur zure aita ere bai;  
A zer ondo, zelan dijua , zure bufanda txuria?

Lau teilatu gainean, ilargia erdian,  
eta zu goruntz begira,  
zure keia eskuetan putzada batekin... putz!  
Neregana etorriko da ta berriz izango gara  
zoriontsu, edozein herriko jaixetan.

Goxo goxo, kanta egin nazu

Benitoren Maria Xolt  
Negarrik ez, txuri zaude ta malkoak  
zure kolorea kentzen dute.

( *Lau teilatu ...* )

Felix, Felix bihar, berriz egongo gara  
txanpain apur batekin;  
diru gabe baina, izarrak gurekin daude,  
piano baten soinuaz. ( *Lau teilatu...* )

**LEPOAN HARTU** Hitzak eta Mus.: T.Monzon

*Lai larai,lai larai lailai lai larai*

*Lepoan hartu 'ta segi aurrera (Lepoan ...)*

Gazte bat lurrean aurkitu dugu  
Lore gorritz beterik kolkoa  
Burdinen artetik ihesi dator  
Euskal gazteriaren oihua  
Mutilak, eskuak elgar gurutza  
Ekin 'ta bultza, denak batera  
Bidean anaia erortzen bazaik  
Lepoan hartuta segi aurrera.

Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik,  
Nor geran, zer geran aitortzeko  
Ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak  
Kataiaz loturik ibiltzeko.  
Gizonak bagera, jo zagun aurrera  
Gure Herriaren jabe\_egin arte  
Askatasunaren hegal azpian  
kabia\_egiten ohituak gare  
Ibiltzen aspaldi\_ikasia dugu  
Otsoak eskutik hartu gabe. (*Lai larai ...*)

Arrotzek ezpataz hil nahi banaute  
Izituko gaituztelakoan  
Zutitu 'ta Euskaraz mintzatuko naiz  
Nere hiltzailearen aurrean  
Mutilak, ez gero nigarririk egin  
Erortzen banaiz gau ilunean  
Izar berri bat piztutzeroa noa  
Euskal Herriko zero gainean.



## **LORETXOA** -B. Lertxundi-: EF#G... (Em)

Mendian larrartean aurkitzen da loretxo bat  
aurrean umetxo bat loretxoari begira.  
Loreak esan nahi dio umetxo aska nazazu  
jaio naiz libre izateko ta ez loturik egoteko.  
Umetxoak ikusirik lorea ezin bizirik  
arantzak kendu nahi dizkio bizi berri bat eman.  
Orduan izango baitu indarra eta kemena  
orduan emango baitu ugari bere fruitua.

## **MAITASUN AROAK**

Hitzak: X. Amuriza

Musika: A. Duhalde

Haurtxo nintzela kontatzen nuen  
nola maitemindua nintzen  
guztiek irri egiten zuten, "ta ikasi nuen ixiltzen.  
Gaztetxo nintzen eta nioen  
"Ez dakit nork maiteko nauen!"  
Eta nekien hura oroitzuz, eskolatik alde egin nuen.

*Maitale baten ixil oroimena  
entzuten ez den asperena*

*gogoan ixil dabilena, ahanztean gelditzen dena.*

Gazte nintzela harrotzen nintzen  
"Nik ezin dut izan baten gai"  
Bainan izen bat ixiltzen nuen, hura izanik agian bai.  
Heldu nintzela aitortzen nion:  
"Zutaz bestesterik ez dut maite!"  
Eta ixilik neraman hari, ezin erran urrundu zaite!  
*(Maitale baten ix...)*  
Azken azkenik maite nautenek  
naramate beste mundura.  
Batek negarrik ez du egiten,  
ene hilkutxan dator hura. *(Maitale baten ix...)*

### **MAITASUNEZ HIL**

Hitzak: Xabier Lete

Musika: Antton Valverde

Hamahiru urte nituenean, oraindik galtza motxetan,  
bere atzetik ibiltzen nintzen, herriko kale hotzetan;  
printzesa hura behar bezala, kortejatzeko lotsetan  
bere etxera lagundu nahirik, eskolatik arratsetan.  
Oh, oh, ez, esaten zuen, oraindik ez, gaztetxo naiz.  
Oh, oh, ez inolaz ez, etxera joan behar dut garaiz.

Hemezortzira ailegatuta, romantizismoz beterik  
etzan posible eromen hura, bazter batera uzterik;  
aingeru harek ez zidan sortzen, sufrimendua besterik,  
sekulan ere ez nuen lortu, bi besoetan hartzerik.  
Oh, oh, ez, esaten zidan, maitemintzeko gaztea naiz.  
Oh, oh, ez, oraindik ez, lotsa ematen dit ta ez dut nahi.  
Lotsaren lotsez pasa ta gero, dozenerdi bat eskutik,  
pentsatu zuen komeni zela, sartzea bide estutik;  
jarraitzen nuen gertutik, ezkontutzia eskatu nion  
ez bazitzaion inportik.  
Oh, oh, ez, erantzun zidan, aspertzen nauzu, zoaz apaiz.  
Oh, oh, ez, inolaz ez, beste batekin ezkontzen naiz.  
Festa batean ikusi nuen, handik zortzi bat urtera,  
ta hotz-hotzean ausartu nintzen, sagar helduen hartzera  
irrifar doble makur batekin, ezkutatu zen atzera:  
ez zen ausartzen bere zezena, adarrez adornatzera.  
Oh, oh, ez, ez da posible, horrelakorik ez nuke nahi.  
Oh, oh, ez, inolaz, ez, ni etxekoandre jator bat naiz.  
Mutilzah'rtuta bizi nintzela, laugarren pisu batean,  
behin uste gabe topatu nuen, gure etxeko atean...  
Bere onenak gastatutako, alarguna zen artean,  
eta honela erantzun zidan, oraingo bion kaltean.  
Oh, oh, ez, orain ia ez, naiz eta zutaz pentsatu maiz.  
Oh, oh, ez, inolaz ez, oheratzeko zahartu naiz.

*(Oh, oh, ez ...)*

### **MAITE, MAITE**

Hitzak eta musika: ezezaguna

*Maite, maite ez ni utzi hemen kaiean  
maite, maite zu nere bihotzean.*

Maitetxo itsasora joan da itsasontzi batean  
maitetxo itsasoan dago urrutirako bidean.

*(Maite, maite ... )*

Maitetxo noiz etorriko da nere bihotza zain dago  
maitetxo noiz etorriko da biok alkar bizitzeko

*(Maite, maite ... )*

### **MAITEA NON ZIRAN**

Maitea nun zira, nik etzütüt ikusten  
ez berririk jakiten, nurat galdü zira *(nurat ...)*  
Ala kanbiatü da zure deseina  
Hitz eman zenereitan, ez behin, bai berritan,  
enea zinela. *(enea z...)*

Ohikua nüzü; enüzü kanbiatü.

Bihotzean behin hartü, eta zü maitatü (*eta ...*)  
Aita jeloskor batek dizü kausatü:  
Zure ikustetik, gehiago mintzatzetik  
Hark nizü pribatü. (*Hark n...*)

Aita jeloskorra, zük alaba igorri,  
Araiz ene ihesi, komentü hartara! (*kom...*)  
Har`eta ez ahal da sartüren serora:  
Fede bedera dügü, alkarri eman tügü,  
Gaüza segürra da. (*Gauza s...*)

Zamariz iganik, jin zaizkit ikustera,  
Ene kontsolatzera, aitaren ixilik; (*ait...*)  
Hogei eta lau urte, baditik beterik:  
Urte baten bürüan, nik ez diket ordüan  
Aitaren axolik. (*Aitaren ax...*)

**MAITEAK GALDE EGIN ZAUTAN:**

CDEFFG... (**FM**)

Hitzak eta musika: ezezaguna

Maiteak galde egin zautan polita nintzanez  
(*Maiteak ...*) polit, polit nintzela baina,  
larrua beltz, larrua beltz.

Maiteak galde egin zautan premu nintzanez;  
(*Maiteak ...*) premu, premu nintzela baina, etxerik  
ez... etxerik ez.

Maiteak galde egin zautan poltsa banuenez,  
(*Maiteak ...*) poltsa, poltsa banuela baina, dirurik ez...  
dirurik ez.

Maiteak galde egin zautan lana nakienez; (*Mait ...*)  
lana, lana nekiela baina, gogorik ez... gogorik ez.

Gaixoa hil behar dugu guk biok gosez; (*Gaixoa ...*)  
gosez, gosez hil naski baina,  
elkar maitez... elkar maitez.

### **MARIA SOLT ETA KASTERO**

Hitzak eta musika: Etxahun Barkoxe

Maria Solt 'ta Kastero  
bi amoros zahar bero.  
Hirurogei-hamarna urtetan hartü die amorio  
Kastero jelostü gero Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solt dua nigarrez  
izorra dela beldurrez  
Barnets-bordako andereak kontsolatü du elez  
emazte zaharrik oküpü agitzen ez dela ez.

Maria Soltek arrapostü  
Santa Elisabet baduzü  
Saintu zahar bateganik oküpü agitü düzü  
Kastero ere bada saintü,  
hala nizan beldür nüzü.

Kastero ez düzü saintü  
sobera bürhaüti düzü  
Elizalat juan eta taharnan egoiten düzü  
Kastero denagatik saintü  
Maria Solt antzü zira zü.

### **MARITXU NORA ZOAZ**

Hitzak eta musika: ezezaguna (R. M. Azkuek jaso)

- Maritxu nora zoaz, eder galant hori
  - Iturrira Bartolo, nahi badezu etorri.
  - Iturrian zer dago? - Ardotxo zuria
  - Biok edango degu nahi degun guztia.
- 
- Maritxu zuregana biltzen naizenean,  
poza sentitutzen det nere barrenean.
  - Bartolo nik ere det atsegin hartutzen,

ur bila noanean banazu laguntzen.

- Maritxu pentsatuzen badezu ezkontzea, leh'ndabiziko nitaz oroitu zaitea.
- Zure mende jartzen naiz denbora guziko.
- Bartolorekin gaizki ez zera biziko.

### **MARKESAREN ALABA**

Hitzak eta musika: Iturrino

1

Zeruak eta lurak egin zituana,  
memoria argitzera atoz neregana.  
Esperantza badaukat, zerrorek emana,  
kunplituko dedala desio dedana.

2

Amoriozko penak bertso berrietan,  
publika ahal banitza Euskal Herrietan  
enteratu naiz ongi enkargu hoietan  
San Jose arratsaldeko hiru t`erdietan.

3

Markes baten alaba interesatua,  
Marineruarekin enamoratua;  
deskubritu gaberik bere sekretua,



amoriua zeukan barrena sartua.

4

Egun sinalia zan goguan hartzeko,

esan ziola haren etxera joateko:

"Deseo dedan hitz hau manifestatzeko,  
zurekin, Antonio, nago izateko".

5

"Zer esaten didazu, Juanita hitz hori?

Tentatzen a'i zerala trazak badirudi.

Etzait zure gradurik tokatutzen neri,;

ez burlarikan egin marineruari".

6

"Eduki dezakezu ongi sinistua

aspaldian nengoela zutzat gustatua.

Ez zaitut nik utziko desanparatua;

hala egiten dizut gaur juramentua".

7

Konformatu ziraden alkarren artean,

ezkonduko zirala hurrengo urtean.

Eskola ikasteko bien bitartean.

beraren herritikan guztiz apartean.

8

Hala disponiturik jarri ziran biak  
kartaz entenditzeko alkarren berriak.  
Formalidadiakin jartzeko egiak,  
bainan ez ziran lo\_egon amaren begiak.

9

”Alperrik izango da haserre gurian,  
ez naute mudatuko eternidadian.  
Esposatu nahi nuke kariño onian,  
Antonio Maria etortzen danian.”

10

Ezin egon zan ama hitz hori sufritzen,  
berehala hasi zan kartak detenitzen;  
intentzio handiagoz ezkontza galdutzen  
Juanitak halakorik ez zuen pentsatzen.

11

Amaren malezia!:Korreora joan ‘ta  
Antonio hil zala egin zuen karta  
Juanitaren tristura, berri\_hura jakinda!,  
engainatua bestek gezur bat esanda.

12

Amak esaten dio: ”Juanita neria,  
galdu da diotenez, Antonio Maria...

nik bilatuko dizut beste bat hobia,  
maiorazgo interes askoren jabia.

13

"Ama ez neri esan horrelakorikan,  
ez det nik bestengana amoriorikan.  
Ezin alegre leike nere barrenikan  
komententzi ona egonagatikan."

14

"Utzi alde batera horrelako lanak,  
ez ditut nik ikusten zu bezela damak.  
Nahi badituzu hartu onra eta famak,  
gidatuko zaituzte aitak eta amak."

15

Denbora kunpliturik galaia abian,  
zer pasatu ote zan haren memorian?  
Kartarik hartu gabe joan dan aspaldian  
inozente sartu zan jaio zen herrian.

16

Hau da lehendabiziko hark esan zuena:  
"Zer da musikarekin onratzen dutena?"  
"Markesaren alaba kalean barrena,  
esposario zala hark bihar zuena".

17

Desmaiatu egin zuen ordu bete,  
gero nobia eske hitz bi egin arte;  
inguratu zitzaion makina bat jende,  
bigarren ordurako hil zan derrepente.

18

Gaua pasatu eta hurrengo goizean  
entierria zuen bigarren klasean...  
markesaren alaba guztien atzean.  
Zer pena izango zan haren bihotzean.

19

Penarekin leh'rturik Antonio hil zan,  
akonpainatu zuen Juanitak elizan.  
Maitasuna bazion esan dedan gisan,  
geroztikan etzuen osasunik izan.

20

Erremedia balei sentimentu hori,  
bitarteko bat jarri Jesus maiteari,  
orazio eginaz Birjina Amari,  
zeruan gerta dedin Antonio Mari.

21

Alkarren konpainian guk ere nahi degu,  
Birjina, egiozu Jaunari erregu

kristau guziogatik baldin ah'! bazendu,  
Iturrinok horrela desiratutzen du.

**MARTXA BATEN LEHEN NOTAK** (J.A. Artze-M.Laboa)  
(Ax5)GFGE... (Dm)  
Hitzak: Bertolt Brecht (Itzulpena: J.A. Artze)  
Musika: Mikel Laboa

Eguzkiak urtzen du goian gailurretako elurra,  
uharka da jausten ibarrera  
geldigaitza den oldarra.  
Gure baitan datza eguzkia, iluna eta izotza  
urratu dezakeen argia,  
urtuko duen bihotza.  
Bihotza bezain bero, zabalik  
besoak eta eskuak,  
gorririk ikus dezagun egia,  
argiz beterik burua.  
Batek gose diraueno, ez gara gu asetuko  
bat inon loturik deino, ez gara libre izango.  
Bakoitzak urraturik berea,  
denon artean geurea,  
eten gabe gabiltza zabaltzen  
gizatasunaren legea.

Inon ez inor menpekorikan,  
nor bere buruan jabe,  
herri guztiok bat eginikan  
ez gabiltz gerorik gabe.  
(*Batek gose di....*) (*Eguzkiak urtzen du ....*)

### **MATALAZ**

Hitzak: Bernard Goienetxe "Matalaz". XVII. mendea  
Musika: Benito Lertxundi

Dolü gabe, dolü gabe, hiltzen niz,  
bizia Xiberuarentako emanen baitüt.  
Agian, agian, egün batez  
jeikiko dira egiazko xiberutarrak  
egiazko eskualdünak  
tirano arrotzen ohiltzeko (*egiazko ...*)

### **MENDE LAUREN BAT** -X.Amuriza, M. Urdangarin-

Mende lauren bat zelan bete den  
pentzetan be hain da gatza  
Zorrontzan bazan esakera bat  
gatza eta berakatza, guretzat gatza zara zu eta  
izango be aurrerantza, fintasunaren berakatza ta

bizitasunaren gatza.

Mende lauren bat, aurrean hormak  
eta zigorrak atzean, eta zu hortxe, diamantea  
sarturik legez atzean, imaginatzen zaitugu zeure  
ziega estu baltzean, giza ardatzik makurgaitzena  
gatzean eta latzean.

Mende lauren bat, bizi erdi bat  
irunsi dauen osina, herri bategaz egitearren  
askatasunaren zina  
etsita behar zendun oraingo, ez bazina, ez bazina,  
Amaren odol, Aitaren azal,  
gatzaren ustelezina.

**MENDIAN GORA: B(Ex3)F#GF#... (Em)**

Hitzak: X. Amuriza

Musika: Imanol Larzabal

Mendian gora haritza,  
ahuntzak haitzean dabilta,  
itsasoaren arimak dakar ur gainean bitsa.  
Kantatu nahi dut bizitza  
usteltzen ez bazait hitza,

mundua dantzan jarriko nuke Jainkoa banintza. *(Ka..)*  
Euskal Herriko tristura,  
soineko beltzen joskura,  
txori negartiz bete da eta umorez hustu da.  
Emaidazue freskura, ura eskutik eskura,  
izarren salda urdina edanda bizi naiz gustura. *(Ema..)*  
Euskal Herriko poeta, kanposantuko tronpeta,  
hil-kanpaiari tiraka etahutsari kolpeka.  
Argitu ezak kopeta, penak heurtzat gordeta,  
goizero sortuz, bizitza ere, hortxe zegok eta. *(Argit...)*  
Mundua ez da beti jai, inoiz tristea ere bai;  
baina badira mila motibo kantatzeko alai.  
Bestela datozen penai ez diet surik bota nahi;  
ni hiltzen naizen gauean, behintzat,  
eizue lo lasai. *(Best...)*

### **MENDIAN LAHAR ARTEAN**

Mendian lah'r artean aurkitzen da loretxo bat  
aurrean umetxo bat loretxoari begira.  
Loreak esan nahi dio umetxo aska nazazu  
jaio naiz libre izateko 'ta ez loturik egoteko.  
Umetxoak ikusirik, lorea ezin bizirik,



arantzak kendu nahi dizkio bizi berri bat eman,  
orduan izango baitu indarra eta kemena,  
orduan emango baitu ugari bere fruitua.

### **MILA MOKANES GORRI**

Mila mokanes gorri, altxa zkik Baiona,  
Altxa zkik Iruña, altxa zkik Euskadi.  
Mila mokanes gorri, iragan San Fermineri  
Orai Leon Erregeri, mila bihotzen irrintzi,  
Mila bihotzen irrintzi. Altxa zkik Baiona,  
Altxa zkik Iruña, altxa denek Euskadiri.

### **MÜNDÜAN MALERUSIK**

Mündüan **malerusik hanitx bagirade**  
**bena ni bezain denik ez da nihun ere.**  
Nihauuren funtsetan **izan na - hiz jabe,**  
**hamar urte'n galerak enetzat dirade.**

Desertuko i - hiziak, **jenten beldürrez**  
**abiatzen dirade egoitera gordez.**  
Ni ere hurak bezala, **gaxoa nigarrez,**

**ene** bizi trixtia'n kontserbi **beharrez**.

Hogei eta bi **urte bete** nün **egünin**,  
Emaztea hartü nün **ene zorigaitzin**;  
erraiten ahal **beitüt zerekin zeitan** jin,  
**ene ürkabilür**ra gorderik **altzopin**.

**Ene lagün** gaixoa mail' eta **flakia**  
Zer **oote dereizüt nahasi zentzia**  
Galerazü **gütüzü ni eta etxia**  
Besteerrin ezarri **familia güzia**.

### **MUNDURAT EMAN NINDUZUN**

Xalbador, B. Lertxundi

Ama, nola zure belaunetan nindadukazun denboran  
Utz nezazu zure bularrean burua pausa dezadan.  
Ene bihotzak zer sendi duen nahi baiterautzut erran  
Zure ezpain sakratuetarik ikasi nuen mintzairan.

Ene deia amodioaren bitartez zinuen entzun  
Eta gero oinazen erdian mundurat eman ninduzun.  
Biziaren grazia lehenik, gero hoinbertze maitasun  
Berant jakin dut, ama maitea, zendako eman dautazun.

Adierazi zerautanean odolak bere mintzoa,  
Berriz gogoratu zitzerautan, o ama, zure altzoa.  
Bai 'ta zure bularretik hartu esne on haren gozoa,  
Orduz geroztik zurea naukan ene izaite osoa.

## **MUÑAGORRIEN BERTSOAK**

Hitzak: Muñagorri

Musika: B. Lertxundi

Muñagorrik diona bere proklamean,  
gerrak ondatzen gaitu boskarren urtean;  
igaz jarrikan Carlos Madrilko bidean  
bultza zuten atzera, gerra bere (*gerr..*) oinean

Agintari onenak preso daduzkate;  
euskalduna izatea du bakoitzak kalte.  
Tejeiro ta Maroto guzien alkate;  
zer gizon hoietatik espera (*esp...*) gentzake.

Karlos agertuz gero probintzi hauetan,  
beti bizi gerade neke ta penetan.  
Naiz kendu guk duguna behin ere ezer eman;  
bost negar egiteko, nunbait jaio (*nunb...*) ginan.

Semeak soldatu 'ta preso gurasoak,  
ezin pagaturikan kontribuzioak.  
trintxera lanetara gainera auzoak.  
Dolorezkoak dira gaur gure (*gaur g..*) pausoak.

Kordoiz inguraturik kostatik Ebrora,  
trabaz gaude josirik bera eta gora.  
Atzenikan frantsesak itxi du frontera.  
gerrak ez dakar onik inundik (*inun...*) inora.

Ateak itxi eta ogia garesti;  
artoa ere ari da igotzen poliki;  
dirua ezkututzen da egunero hemendik.  
Nola bizi garen bada harritutzen (*harr...*) naiz ni.

### **MUTIL KOXKOR BAT**

Hitzak eta musika: Pedro Mari Otaño

Mutil koxkor bat itsu aurreko zuela aldamenean,  
gizon buru-soil bizar-zuri bat  
bi makuluren gainean,  
kale ertzean ikusi nuen, inora ezin joanean,  
'ta bera nor zan jakin nahiean,

inguratu nintzanean,  
limosnatxo bat eskatu zidan  
Jainkoaren izenean.

Zerbait emanaz galdetu nion,  
al zan modu onenian,  
jaiotzetikan al zeukan ala  
gaitzak hartua mendian.  
Erantzun zidan, -ez semea, ez,  
nik indarra nuenian,  
ez nuen uste iritxitzerik onetara azkenean...  
Gaur limosna bat eskatutzen det,  
Jainkuaren izenian.

Eta jarraitu zuen esanaz:  
Leh'ngo gerrate denean,  
ni aurre'n xamar ibiltzen nintzan  
beti edo gehienean,  
nekatu gabe aisa igoaz  
aldapik luzeenean,  
ez zan burura asko etortzen  
gu hala gabiltzanean...  
gero limosna eskatutzerik

Jainkoaren izenean.

Odola bero eta burua artoa dagoenean,  
edozein eran sartutzen da bat  
halako itsumenean,  
atsekabe ta negar saminak  
badatoz ondorenean,  
nola erabait batek bizia utzitzen ez duenean...  
limosnatxo bat eskatu behar  
Jainkoaren izenean.

Inoiz pentsatzen nere artian,  
ni jartzen naizenian,  
gaur ere asko dirala joango lirakenak zuzenian,  
ez luke inork sinistatuko  
zer pena ematen didan.  
Ai! Hor'la nintzan ni ere sendo  
ta gazte nenguanian...  
gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkoaren izenian.

Ai! txorakeri' asko egiten  
da zentzurik ez danean,

sinista zazu ur hau pasea  
daukanaren esanean,  
hobeagao da, garai den arte,  
alegintzia lanean,  
negar eginaz ibili gabe  
gero denbora joanean...  
limosnatxo bat bildu ezinik  
Jainkoaren izenian.

## **NABARRAKO HIMNOA**

Nafarroa lur handi t'azkar  
**B**eti le - ial, zure - os-pe-a da  
antzinako lege z'ha - rra.  
Nafarroa **j**en - deas - ka - tu - en  
**s**or-le-ku-a, zuri na - hi di - zu - gu  
gaur kanta. (*Nafarroa lur ...*)

**G**aren denok bat, ( --- ♪ --- )  
Na - ba - rrao - so bat, ( --- ♪ --- )  
**B**ehin - be - ti - ko, iritsi dezagun  
a - in - tza ba - ke,  
e - t'as - ka - ta - su - na.

## **NAFARROA**

Hitzak eta musika: Jean Mixel Bedaxagar  
(Agosti Xaho pastoraleko kantua)

Arbasoen arkaitza  
Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa  
arbasoen arkaitza.  
Lur emankor hezkaitza, bedatseko ekaitza  
ekiaren emaitza, Nafarroa, Nafarroa.  
Arbasoen arkaitza.

Zazpietan lehena  
Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa  
zazpietan lehena.  
Gaztelien auhena, Santxoren asperena  
Gazte'n itzaropena, Nafarroa, Nafarroa  
zazpietan lehena.

**NEVADARAT JOAN NINTZAN** -J.Kozteratu-Herr.- :  
EEEEF#EF#E... (AM)

Nevadarat joan nintzan, dirurikan gabe  
Handik itzultzekotan maitea, bortz miliunen jabe.



*Ai, ai, ai, ai, ai ! ametsaren lana !  
Ait'amen erranetarik barna, ibili bagina !*

Urteak joan ziren, on ta txar nahaste,  
Gure fortuna heiekin eta, denak berriz haste !

*(Ai, ai, ...)*

Begia zorrotz eta, memoria argi  
Ez den ez den tokian, maitea, aztaparra garbi.

*(Ai, ai, ...)*

Moltsa arin dut, bainan, aberats gogua !

Nere fortuna zare, maitia, nere sosegua ! *(Ai, ai ...)*

### **NERE MAITIA JEIKI TA JEIKI**

Hitzak eta musika: ezezaguna

-Nere maitea jeiki ta jeiki, ez al zerade loz ase.  
zure ondoren gabiltzan hauek, ez baigerade logale,  
iriki zazu bortañe hori, adiskideak gerade.

-Ez dizut bada nik irikiko, gau ilunean aterik,  
barrenen dagonak ez baitaki, kanpokoaren berririk;  
zatoz eguna argitzen denean, egongo gera elkarrekin.

-Bihar goizean etorritzeko, urrun bizi naiz maitea;  
txakurra zangaz hasitzen bada, nork egingo du pakea  
-Harrekikua nik egingo det, arren etorri zaitea.

-Hona etorri dama gaztea, esan zenidan bezela.  
-Ongi etorri, galai gaztea, neronek nahi nuen hor'la;  
hitz bi gustora egin ditzagun, pasa zaitea salara.

Salara joanda kutxan eseri, begiratuaz elkarri  
-Inposible da ez zaituela, Ama Birjinak ekarri.  
beti-betiko hartu nazazu, penaren kontsolagarri.

### **NERE SENTIMENTUA**

Hitzak eta musika: Antonio Urbietta  
(Jose Juakin, "Kaskazuri", bertsolariaren anaia)

Nere sentimentua nahi det deklaratu:  
Ameriketan nago hau ezin ukatu;  
hemen eginagatik ondo gobernatu,  
orkoaz egiten naiz asko akordatu.

Onuntz etorri nintzan utzirikan ama,  
anai-arrebak eta familia dana;  
egiteagatikan desio nuena,

geroztik triste dago, ai! nere barrena.

Hamazazpi urtetan banuen segira:  
neska gazte guztiak neroni begira;  
lurrik ikuttu gabe, gorputzari jira,  
orduak arintasunak asentatu dira.

Gorputz ederra nuen dantzari arina,  
bainan ez da izaten betiko egina;  
orain eginagatik, hemen alegina,  
ez gera libertitzen orduan adina.

Horko bizomoduaz oso aspertuak,  
honarako ziraden gure desiuak;  
orain atzera berriz emanik pausuak  
hemen bizi gerade erdi-mudatuak.

Despedida dihoa sei bertso hoiekin,  
anaia konformatu horrenbesterekin:  
nere gustua hau da, nahi badezu jakin:  
beste horrenbeste jarri, aio Jose Joakin.

## **NORAT JOAN**

(Hitzak eta Musika: Manex Pagola)

Norat zoaz, neska gaztea, hain ilunikan begia?  
Norat hoa, mutil gaztea, Nahi duka nik erraitea?

*Xoraturik ezarri haute, plazerra ez dela kalte....  
Erori duk hire mundua, eta orai haiz galdua!*

Norat doa gure mundua, hain ardura uzkailea?  
Norat doa, hartu bidea, hain ardura bihurtia?  
(*Xoraturik ...*)

## **OI GU HEMEN: BGF#E... (Em)**

Oi gu hemen, bidean galduak (*Oi gu ...*)  
heriotz minez. (*Oi gu hemen...*)

Gizonen itzala luzea  
Negarrez haizea gauean  
Arbolak, erroak aidean  
Heriotza da. (*Oi gu hemen ...*)

Pobreak kalean bilutsik  
Barnea esperantzarik gabe  
Doinua basoko tristuran  
ilunabarrez. (*Oi gu hemen ...*)

Nundikan ezinaren mina  
Zergatik errekan iluna  
Egurra, kolpeka landua  
Bide hustuak. (*Oi gu hemen ...*)

**OI AMA ESKUAL HERRI GOXUA:**

(F#x4)EGF#F#... (DM)

Hitzak: Etxaun Iruri

Musika: ezezaguna

Anaia etxe'n da ezkontü, bükatü niz o'ai joaitera  
ene opilaren egitera, Pariserat baniazü.

*Oi ama Euskal Herri goxoa  
zütandik ürrün triste banoa,  
adios ene etxondoa, adios Xiberoa.*

Pariseko bizitzea, lan kostüz irus bagiatzü,  
bena berantzen zitadazü, zure berriz ikustea.

*(Oi ama Euskal Herri goxoa ...)*

Bena denbo'a da labürxko, otoi ama entzün nezazü  
Xoko bat haita izadazüt, azken egün hoientako.

*(Oi ama Euskal Herri goxoa ...)*

### **OI! LABORARI GAXOA!**

Oi! laborari gaxoa!, hihaurek jaten artoa:  
Ogi eta ardo geñhatzen auherren asetzekoa:  
Halere hain haie maite nula artzainek otsoa.

Artzaina bada beztitzen, josleak tü gomendatzen  
Zaragollen alderdi bata oihal hobez ezar dezen:  
Halere hingatüren dizü aitzinia beno lehen.

Dendaria berant jiten, arratsan goizik ützültzen,  
Eta mündüaren jorratzen arte hartan abüsatzen:  
Ez beitü jaten diana hüllantzeko irabazten.

**ORHIKO XORIA** -Hitzak eta musika: Pantxo eta Peio-

Jende gaztea dabila, etxetik urrun lanila...  
Ez erran galdurik dela, itzul ditaïke berehala.

*Jin bedi gure artila, Ori-ko xoria Ori-la.! (Jin bedi ...)*  
Xorittuaren hegadak, arin aidea bezala...  
Gaztek begira dezala, azkar euskaldun odola!  
*(Jin bedi ...)*

Xoriak jiten zauzkula, huts egin gabe sekula...  
Lehenik bat, gero mila, xortak egiten ixtila *(Jin b...)*  
Xoria izan dadila, euskaldun gazten mudela!  
Mutiko ta neskatila, ziauzte denak sor-lekila!*(Jin b.. )*

**ORREAGA** -Iratzeder - B.Lertxundi.-

Zuhaitzetan den ederrena da oihan beltzean pagoa...  
Orreagako mendi gainetan badabil euskal-gogoa:  
Galernen eta gerlen artetik mendetan barna xut doa,  
pagadoietan ixilik kontuz Europakoen geroa.

Zonbat gerlari, sarraskiz gose, odolez eta suz hordi,  
Europatarrak zanpatu nahiz iragan denik horgaindik!  
Ibainetako mendi lepoa heietaz mintza baladi,  
aipa letzazke lehen-lehenik Arrolan ata Karlandi.

Buru-gabetu, bihotzez hustu jendalde lehertuekin,

mundu guztia nahiko zuten, beren azpiko bategin.  
Euskal jendeak, denengatik xut, gogor jeikitzen du jakin  
mendi gain hautan, burua gora, gizonak gizon dagotzin.

Indarkeriak ezarri mugak kraskatzen hasi orduko,  
Euskal gogoa noiz da jauziren arranoaren pareko?  
Azpilkueta bezain kartsuko eta jakintza gaitzeko  
gizon libroak noiz ote dire Orreagatik jaliko?

Zoin den pizgarri mendietarik jauzika doan xirripa...  
Euskal semeak, Aiten gogoa bihotz guziaz hurrupa!  
Altxa burua, denek bat kanta: Euskal Gudua gaur aipa:  
Entzunik zuen irrintzina, xutik jar dadin Europa!

## **OSTALERTSA**

Ostalerts**a** begi ñab**ar**ra  
Zenbana du<sup>u</sup>zu a<sup>a</sup>rdo**a** (*Ostalerts**a** ...*)

Batean **b**osta, bestean **s**eia  
Ireki ezazu **b**otila (*Batean ...*)

Bada **b**osta, bada **s**eia, ireki ezazu **b**o<sup>o</sup>tila  
Aspaldia<sup>a</sup>n na-**h**i nue<sup>e</sup>n



**Nik** ddastatu zure ardoa (*Bada bos...*)

(*Ostalerts*a ...)

### **OSTIRALETAN DUZU**

Ostiraletan duzu Garruzen merkatu:  
Ene maite pollita han nuen kausitu;  
Pot bat gald'egin neron xapela eskian,  
Biga eman zautadan, nigarra begian.

Gero gald'egin neron. «Nigarrez zer duzu?  
Hola xangrinatzeko sujetik ez duzu».  
Arrapostu eman zautan: «Zuhaurek badakizu;  
Ene nigar ororen sujeta zira zu».

### **OTXAGABIAN**

Hitzak eta musika: Etxamendi

Karlixtoekin hasi ginan 'ta, reketekilan segitu  
gerra haundiak irabazi 'ta, auziak ditugu galdu.  
Hilarrietan loreak dire, goizalderako zimeldu  
mendi gainetan elurrak dire, jorraila gabe gesaldu  
bainan halere primaderarik, nafarroarat ez heldu.

Otxagabian, Otxagabian zer dute (Otxa...)  
kantuak galdu, cantuak galdu zaizkote  
eskuara galdu, erdera sartu zaiote  
Lizaso alde'n, Lizaso alde'n zer dute  
etxeak husten, etxeak hustu zaizkote  
Lizaso alde'n, Lizaso alde'n zer dute  
herria saltzen, herria saldu omen dute  
Nafarroaren, nafarroaren auhena  
arrozturikan, arrozturikan hil dena.  
Karlixtoekin hasi ginan 'tareketekilan segitu  
salbatu omen...España oro, oro Nafarroa salbu.  
Zuhain onaren erostekotan, artaldea dute saldu  
pentze larretan xoriak dire, uda jin gabe ixildu  
bainan halere primaderarik, Nafarroarat ez heldu.

## **PARTITZEKO TENOREA**

Orai düzü ene maitea, partitzeko tenorea.  
Hasperena bihotzean, eta nigarra begian  
Tristüran bizi behar düt  
Ene denbora güzia, ene denbora güzia.  
Ez zütüt nahi kitatü, sobera zütüt maitatü,  
Lili eijerra so egidazü,

Ene bihotza zurea düzü, eta zurea nerea düzü.

### **PELLO JOXEPE**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Pello Joxepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen (*Pello Jo...*)  
etxera joan da esan omen du:  
-Ez da nerea izanen,  
beraren amak topa dezala  
haur horrek aita zein duen.

Hau pena eta pesadunbrea!  
Senarrak haurra ukatu (*Hau pe...*)  
Pello Joxepe bihotz nerea  
haur horrek aita zu zaitu  
haur horrentzako beste jaberik  
ezin nezake topatu.

Zure semea besoan daukat  
senarra aldamenean (*Zure Sem...*)  
orain denborik ez daukat eta  
zoazkit ordu onean  
neronek abisatuko zaitut

garaia datorrenean.

Fortunosoa nintzela baina  
ni naiz fortuna gabea, (*Fortu...*)  
abade batek eraman dizkit  
umea eta andrea:  
haurra berea bazuen ere  
andrea nuen nerea.

Pazientzia hartu behar da  
munduan Pello Josepe, (*Pazien...*)  
andrea ere zurea izanda  
haurra bestena diote;  
gizonen faltan igarotzen da  
basoan zenbait larrarte.

**PEÑA BAIONA** -J.Cl. Iriart, Udo Jurgens/Michel Kunze- :  
GCEbGG... (**Cm**)

**Mende bat ari zaukula azkar eta erne**  
*Aviron Bayonais.*  
**Errugbi - an premi - atsu da elkartasuna**  
**Kontrakoen errespetua 'ta lagunena**

**Horrela baitugu lortzen garaipena**  
Dena xuri urdinez **beztitzen** da **Baiona**  
**Bihotz guzi** - etan **sendi** da **alaitasuna**  
**Guzi** - etan **nagusi** da **gure** peña.

*Agur agur, Aviron Bayonais-ko ekipari*  
*Gure herriko xuri urdineri*  
*Biltzen gaituen "Jean Dauger" zelaiari*  
*Txalo txalo, gure hamabost jokolarieri*  
*Gogotik ari diren mutileri*  
*Baiona ohoratzen duuteneri.*

**Mende bat ari zaukula azkar eta erne**  
*Aviron Bayonais.*  
**Gure uztartzea denetan da famatua**  
**Hegaletan ardura markatzen entsegua**  
**Euskal Herri guzitik sustengatua**  
**Gaztetxoek formakuntzan guziz aritua**  
**Publikoak beti danik suhar jarraitua**  
**Goratuz aspaldiko izpiritua.** ( *Agur ag... + txalo...+* )  
*Txalo txalo, Aviron Bayonais-ko ekipari*  
*Gure herriko xuri urdineri*  
*Biltzen gaituen "Jean Dauger" zelaiari.*

Mende bat ari zaukula azkar eta erne  
*Aviron Bayonais.*

## PILOTARIEN BILTZARRA

Agur agur jende gūziak agur bihotzetik  
Zaharrak eta gazteak bildūrik hūrrūndik  
Eskualdūn joko jaunari bere lūr harrotik  
Lili eder bat da egūn zabaltzen itzaletik

*Gizon gaztendako beharra*  
*Ta zaharren indarra*  
*Gora kanta obra ederra*  
*Pilotarien Biltzarra*

Gure jinko jaunak deizkū ezarri mūndian  
Txorik kantūz oihanean et'ardik mendian  
Untzietan marinela itsaso erdian  
Eta pelota maitia eskual herri aldian (*Gizon...*)

Arbolarik ederrena oihanean haitza  
Haize handirenak dio ez dela ez thatxa  
Eskualdūn pelota horri ez besoak khūtxa

Beti nausi izan dadin denek dezagün altxa

## **PRESOAREN ESKUTITZA**

Gau **on** ama, bi **hitz** bakarrik  
berri on **bat** zuri emateko;  
bakartzen da gure gau **luzea**  
laister nauzu anaien **ondoan**,  
**etxe zah'rrera** **berriro** itzuliz  
leh'ngo **kaletan** borrokatzeko!

**Esaiezu** nere lagunei  
ez **noala** **esku** **hutsikan**:  
Maitatu dut **gure** **aberria**,  
sufritu dut **kate** **lazgarria**,  
baina **hargatik** **etsipen** **beltzean**,  
noraezean ez naiz **erori**!

Ez **nuke** **nahi** **ilunpe** hon'**tan**  
**anai** bakar **bat** lotuta **utzi**!  
**Eska** **zaiezu** aberkide **guziei**  
**indar** **guziz** **oihu** **egin** **dezaten**!

Denok **batera atera gaitezen**  
Zulo **hontatik libre izateko!**

**PRIMA EIJERRA: AABAF#F#... (DM)**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Prima eijerra, zütan fidatürik,  
anitx bagira, oro tronpatürik.  
Enea zirenez, erraizü bai ala ez,  
bestela, banoa  
desertiala, nigarrez urtzera.

Desertiala joan nahi bazira  
arren, zoaza; oi, bena berhala.  
Etzitiala jin, hartzara nigana,  
bestela, gogo  
dolütüren zaizü, amoros gaixoa

Nitan etsenplü nahi düanak hartü  
Ene malürrak parerik ez beitü  
Xarmagarri bat nik beinüan maitatü  
Fidatü, tronpatü,  
Seküla jagoiti ikusi ez banü.



Mintzo zirade arrazu gabetarik  
Ez dūdala nik zur' amodiorik  
Zü beno lehenik banian besterik  
Maiterik, fidelik,  
Horrez ez dereizüt egiten ogenik.

**RODRIGO: DEF#(Gx3)AB... (GM)**

Jinkoak ezarririk familiaren bürü  
Uhure haizü da ama bezain aita  
Haur gisako zonbait harien üngürian  
Hori da egiazkobizitze perfeita.  
Bena nahigabeak beirade artean  
Hortan da Rodrigo ez jakin zer hauta:  
Aita afruntütan, nigarretan üztea  
Edo pünitzea maitearen aita.

Üskaldün odola da denen leialena  
Kastillakoa aldiz oro'en beroena  
Han ezpata püntan jüjatürük dirade  
Bide xüxenetik baztertzen direnak.  
Rodrigo joan hadi, haütatü düan bidean  
Orai kunplitzera aitaren deseina

Zer nahi hel dadin, güziak parkatürik  
Ützüliren beitzak, fidelik Ximena. (*Zer nah...*)

### **SALAMANKARA**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Aita jainkoak egin banindu, zeruetako giltzari,  
azken orduan jakingo nuke, atea nori iriki.  
Leh'nengo aitari,, gero amari, gero anai-arrebari  
ta azken orduan ixil-ixilik,, nere maite politari.

Txiki-txikitik aitag eta amak, praile ninduten nombratu,  
estudioak ikasitzera, Salamankara bi'aldü.  
Salamankara nindoalarik, bidean nuen pentsatu  
estudiante tunante baino, hobe nuela ezkondu.  
Ezkondu nintzan, bai ni ezkondu,  
baita ere ongi damutu,  
praka beltzean hari zuria, sekula ez zait faltatu.  
Praka beltzean hari zuria, txaketa mangagabea,  
horregatikan deitzen didate, arlote miserablea.

## SAN SEBASTIAN MARTXA

Bagera!, Gu're bai  
Kalera noa, beti pozez, beti alai!

Sebastian bakar bat zeruan  
Donostia bakar bat munduan  
Hura da santua 'ta hau da herria  
Horra zer dan gure Donostia!

Irutxuloko gaztelupeko  
Joxemari zah'r eta gazte  
Joxemari\_emiakin nah'ste  
Kalerik kale danborra joaz  
Umore ona banatzen hor dijoaz  
Joxemari!

Gaurtandik gerora penak zokora  
Festara! Dantzara!  
Donostiarrai oihu egitera gatoz  
Pozaldiz!, Inauteriak datoz!

Bagera!. Gu're bai, kalera noa  
Beti pozez, beti alai!

## **SAN SIMON ETA SAN JUDA**

Hitzak eta musika: Xabier Lete

San Simon eta San Juda  
joan zen uda eta negua heldu da.  
Ez baletor, hobe, bizi gera pobre  
eremu latz honetan,  
ez gera hain onak benetan.  
Ez dugu zaldirik, ez gera zaldunak;  
ez dugu abererik, ez gera aberatsak;  
euskara guk dugu, gu gera euskaldunak (*eus...*)  
(*San Sim...*)

## **SARRI, SARRI**

Ez dakit zer pasatzen den  
azken aldi hontan  
jendea hasi dela dantzatzen sarritan  
zerbait ikustekoa du, bi falta direlako  
«Recuento generalean».  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, viva tú.

Irratikoak han ziren, emititzen zuzenean  
paella jango zutela  
eta Piti eta Sarri bere muturretan  
saltsan zeudela konturatu gabeak.

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri.

Zaila dugu sortzea, doinu gogozagorik  
Sarri dio herriak, txanpainaz ospaturik  
Iruñeko entzierroa, desentzierroa hemen  
zapi gorriak, zerua du estaltzen.

Ez dakit zer pasatzen den  
azken aldi hontan  
jendea hasi dela dantzatzen sarritan  
zerbait ikustekoa du, bi falta direlako  
«Recuento generalean».

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, viva tú

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi badoaz,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, hanka kalera  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bafleetatik...  
kriston martxa dabil!

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, viva tú

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi badoaz,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, hanka kalera  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bafleetatik...  
kriston martxa dabil!

### **SOLFERINOKO ITSUA**

Armen hartzera deitu ninduen, gazterik zorte etsaiak,  
urrundu nintzen herrialderat, itzuliz usu begiak (*itz ...*)  
Betiko gaua, gau lazgarria, begietara zait jautsi,  
ene herria, ene lagunak, nihoiz ez behar ikusi (*nih ...*)  
Ene amaren begi samurrak, betiko zaizkit estali,  
maiteñoaren begitarte, behin betiko itzali (*beh...*)

Ene herrian gazte lagunak, kantuz plazara dohazi  
eta ni beltzik, etxe zokoan, irri egiten ahantzi (*irri ...*)  
Ai, aski hola! Jainkoak barka!, begira zure haurrari  
kontsolamendu zerbait emozu,  
noizbait duzun urrikari (*noizbait...*)

### **SOR LEKUA**

J.-B. Elizanburu / populaire

Sor lekua utziz geroz ondikotz hala beharrez  
Jainko ona urrikaldu da beti nere nigarrez:  
Primaderan hasi orduko arbolan estaltzen lorez,  
Xoritto bat heldu zaut beti nere herritik hegalez.

Nereganat hain urrundik etortzean, unatua,  
Arbolarik hurbilena du bere pausa lekua.  
Aldaxka goren gorenean, horra nun den lokartua:  
Luma pean zango bat eta hegal pean du burua.

Pausa hadi, lo egizak, xori maitea, bakean  
Atzarria ni hire zain hemen nauk hire aldean,  
Ur xortarekin horra gero papurrak leiho gainean;  
Bainan gero hango berriez oroit hadi atzartzean

Oroit hadi bai, xoria, Herri maiteko berriez,  
Nere aitaz, nere amaz, nigarrez han nik utziez,  
Mintza hakit haurridez eta mintza lagun on hekiez,  
Mintza nihor ahantzi gabe, maite nituen guziez.

Atzar hadi, atzar bada, berriketari abila,  
Nere beldur izan gabe jin hakit hurbil hurbila;  
Ene leihoan izan hizanez erradak ixil ixila,  
Izan ere hunatekoan solas ordainaren bila.

### **TIRIKI-TRAUKI: TXALAPARTA**

#### **TOPA DAGIGUN**

Hitzak: Jon Sarasua Musika: Oskorri (Ukraniar kantua)

Errioxar, Baigorriko, Bakio nahiz Getariko,  
topa dagigun eta bakean  
bizi gaitezen betiko (*topa ...*)

Umeak arretaz horni, gazteei hitza eskeini  
gaztetxoago eta haurrago  
izan gaitezen geroni. (*Errioxar, Baigorriko...*)  
Ez uka amonei hitzik, entzun agureei pozik,  
zaharra ez da izandakoa,



luzaroan dena baizik. (*Errioxar, Baigorriko...*)  
Hierarkia da lehorra, harremana emankorra;  
errespetuan dago gordeta  
emakumeen altxorra! (*Errioxar, Baigorriko...*)

## **TRAPU ZAHARRAK**

Hitzak: Iparragirre

Egokitzapena: X. Lete

Egunez **trapu biltzen, gauean dantzan leh'rtzen**  
**beti umore onean, degu pasatzen,**  
eta goizean goiz, kalera irten da  
lo **goxo'n daudenak esnatzen ditut.**

*Trapu, trapu zaharrak!!!*

*Atera atera, trapuak saltzera*  
*nik erosten ditut modu onean*  
*arditian prakak koartoa abarkak*  
*ta burni zah'rrak txanponean.*

**Erosten ditut trapuak, prakak za - har urratuak**  
**gona gorri zah'rrak eta, atorratxuak.**  
Jo zak zurrumuzki, atabal soinu

**dantzan egiteko beti erana.** *(Trapu ...)(Atera...)*

**Eltze elbarriturik, pertza zulorik du'nik**  
arran parrilik edo, **trebera zah'rrik.**  
Inork saltzeko **badauzka, librako txanponean**  
**Ramon Batistak, erosten ditu.***(Trapu...)(Atera ...)*

### **TRISTE BIZI NAIZ ETA**

Hitzak eta musika: Indalezio Bizkarrondo (Bilintx)

Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe,  
badaukat bihotzean hainbat atsekabe.  
Maite bat maitatzen det bainan haren jabe  
sekulan izateko esperantzik gabe. *(Mait...)*

Bihotz baten lekuan mila banituzke,  
zuretzako maitea izango lirake.  
Baina mila lekuan bat besterik ez det;  
hartzatzu, ba, maitea bat hau mila bider.*(Bai...)*

Nere maite polita nola zera bizi?  
zortzi egun honetan ez zaitut ikusi.  
Badakit zabiltzala nigandik igesi,

ez didazu ematen atsekabe gutxi. (*Badakit...*)

**TTIKI TTIKITIK: EFG... (CM)**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Ttiki ttikitik aitak eta amak, fraile ninduten nonbratu  
bai eta ere Salamankara, istudiante bidaldu.  
Salamankara nindoalarik, bidean nuen asmatu  
ixtudiante tunante baino, hobe nuela ezkondu.

Ostatu xume polit batean, gosez gelditu bainintzen  
neska xarman bat ari zitzaidan  
mahainean zerbitzatzen.  
Begia kartsu, ezpaina lore, enekin aise mintzaten,  
aingeru hori ordu berean, ene bi<sup>h</sup>otzean sartu zen.

Hitz erdi batez maite nuela, erran nion beharrira  
baina gaixoa, herabetua, ihesi joan zen kanpora.  
Ez ahal nuzu, izar ederra, kondentzen infernura,  
ez da sekulan ene gogotik, histuko zure itxura.

Jainko maiteak egin banindu, zeruetako giltzari  
azken orduan jakingo nuke,atea nori ireki.  
Lehenengo aitari, gero amari, gero anai-arrebari,

ta azken orduan isil-isilik, ene maite politari.

**TXALAPARTA (TIRIKI...): (Ax4)F#G... (DM)**

Tiriki-trauki, hiru ta lau dira zazpi,  
Xurruxumurru, bat batean dira urrun,  
tiriki-trauki ezker eskubi  
bien artean dago zubi, hots bare-bare  
hor leiho sare. hiru ta lau dira bi...  
bat..., bat...,

**TXABI (LEHENGO BATEAN)**

Lehenko batean, kalearen erdian,  
Benta-Handi erdian, Xabier anaia, hil zuten.  
(*Lehenko bate...*)

Eta nolaz gu,  
gu, eguneroko patxara merkean  
oso lasai bizi geran...  
geure izerdia xurgatzen duten  
beste jende hoiek, bihar ere, berriro ere,  
beste bat hilko dute. (*bihar e...*)

## **TXANTXIBIRI:**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Txantxibiri, txantxibiri gabiltzanean  
Elorrioko kalean,  
hamalau atso tronpeta jotzen, zazpi astoren gainean.  
Astoak ziren txiki-txikiak, atsoak, berriz, kristonak!  
Nola demontre konpontzen ziran  
zazpi astoren gainean (*Astoak ...*)  
Saltzen, saltzen, txakur txiki baten karameluak,  
Está muy bien! esaten du konfiteroak (*Saltzen ...*)  
Cuando vamos a Otxandiano Andramari egunean,  
me cagüen la mar, comeremos chocolate  
sonbreruaren gainean. (= orinal zahar batean)

## **TXIKIA**

Txikia zuen guda-izena  
bera gizon osoa izan arren  
Mendizabal, Sasetaren urrena  
biak txiki, bizkor eta lerdin  
Saseta hil zen gudarien aurrean  
Mendizabal hil zaigu bakarrik

bainan biek daukate Herri osoa  
atzo ta gaur euren atzetik  
Euskadirentzat hil dire'ta  
gorputzak arantzaz beterik.

Arro hadi Kantauri Itsasoa  
t'haien betiko loa betiko kanta zak.  
Geroari esaiok olatuetan  
Herr' izarrak ez direla itzaltzen,  
gure haurrek biharko ikastoletan  
heien izenak kantatu ditzaten,  
arantzetan biak hil bait ziren. (*Arro hadi...*)

### **TXORI ERRESINOLA**

Txori erresinola udan da kantari,  
zeren ordian beitu kanpuan janari;  
negian ezta ageri; balinban ezta eri.  
udan jin baledi, konsola nainte ni.

Txori erresinola ororen gehien,  
bestek beno hobeki hark beitu kantatzen  
harek du inganutzen mundia bai tronpatzen;

bera ez dut ikusten, bai botza entzuten.

Amak utzi nundizun bedats azkenean;  
geroztik nabilazu hegalez airean.  
Gaiak urtuki nundizun sasiño batetara,  
han zuzun xedera, oi! ene malurra!

Txoria zaude ixilik, ez egin kanturik;  
txoria zaude ixilik, ez egin kanturik;  
eztuzu profeiturik ni hola penarurik,  
ez eta plazerik ni tunban sarturik.

### ***TXORIA TXORI: HEGOAK***

#### **UME EDER BAT:**

Hitzak eta musika: Iparragirre

Ume eder bat ikusi nuen  
Donostiako kalean,  
Hitz erditxo bat hari esan gabe  
Nola pasatu parean? (*Hitz ... x3*)  
Gorputza zuen liraina eta  
Oinak zebiltzan airean...

Politagorik ez det ikusi  
Nere begien aurrean. (*Polit... x3*)

Aingeru zuri, paregabea,  
Euskal Herriko alaba,  
Usterik gabe zugana beti  
Nere bihotza narama. (*Uste...*)  
Ikusi nahian beti hor nabil,  
Nere maitea hau lana!...  
Zoraturikan hemen naukazu  
Beti pentsatzen zugana... (*Zora...*)

Galai gazteek galdetzen dute:  
Aingeru hori non dago?  
Nere maitea nola deitzen dan  
Ez du inortxo jakingo. (*Nere ...*)  
Ez berak ere, ez luke nago:  
Konfiantza horretan nahiko  
Amorio dun bihotz hoberik  
Euskal Herrian ez dago. (*Amorio ...*)



**URTE BATEZ: AA(Dx4)F#F#...(DM)**

Urte batez maite bat izan dut nik  
Urte bat betetzen du egun hunetan  
Oroitzen naiz nola zure besoetan  
Lokartzen nintzan  
Fidatu 'ta bihotza eskainirik.

Oroimen ho'i a'ztu nahi nuke garaiz  
Nahi nuke bai samintasunez mozkortu  
Nahi zinduzket adimendutikan kendu  
Eta alferrik  
Mozkortzean gehiago oroitzen naiz.

Denbora ho'i ez litaike bihurtu  
Maitasuna zuk urrez ordaindu nauzu  
'Ta bihotza nahigabez bete didazu  
Esker gabe  
Norbaitek berdin ordainduko zaitu.

Zur' epaile denbora da izango  
Nahiz eduki daukazun edertasuna  
Gaur izanik maite asko ditutzuna

Begira gero  
Ez ote zaitun nihork maitatuko.

## **URTXINTXA**

Urtxintxak oihanean jauzika,  
Aldaxkatik aldaxkarat ...  
Zuk erradazu, ama, zendako  
Ez diren erortzen lurrerat ?

*Nik ere nahi nuke  
Izan urtxintxa bezala!  
Hain gora, hain trebe,  
Izaiteko libree !*

Urtxintxak oihanean zintzilik,  
Buruz beh'ra buztanetik  
Zuk erradazu, ama, zendako  
Ez duten buruko minik ? (*Nik ere ...*)

Urtxintxak oihanean karruzkaz,  
Neguko bildu heltzaurrekin

Zuk erradazu, ama, zendako  
Ez dezaketan egin berdin? (*Nik ere ...*)

**XALBADOREN HERIOTZEAN:**

(Ex3)FEDC... (CM) Hitzak eta musika: Xabier Lete

Adiskide bat bazen orotan bihotz bera,  
poesiaren hegoek sentimentuzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia,  
hitzen lihoa iruten bere barnean irauten  
oinazez ikasia... ikasia.

*Nun hago, zer larretan, Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora, oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana. (Nun hago, ...)*

Hesia urraturik libratu huen kanta,  
lotura guztietatik gorputzaren mugetatik  
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela bertsoerik sakonena,  
inoiz esan ezin diren, estalitako egien  
oihurik bortitzena... bortitzena.

*(Nun hago, ...)*

### **XARMANGARRIA ZIRA**

Hitzak eta musika: ezezaguna

Xarmangarria zira eder eta gazte,  
Ene bihotzak ez du zu baizikan maite.  
Bertze zenbait bezala, ote zira libre?  
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke. *(Bertz...)*

Xuri gorria zira, arrosa bezala:  
Profetak ere dira mintzo hola hola.  
Araberan bazinu gorputza horrela,  
Iduriko zinuen.. zeruko izarra. *(Arabe...)*

### **XORIERI MINTZO ZEN: DDAAGBbA... (Dm)**

Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekarri  
Oihaneko zuhaitzeri ta zeruko izarrerri  
Mintzo zen haizeari xoro batentzat zaukaten  
Xorieri mintzo zen xoro batentzat zaukaten.

Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan  
Bainan ongi bazakien zeruko seinaletan

Zeruko seinaletan ta jenden bihotzetan.

*(Xorieri min...)*

Hurrek zuten harrikatzen

zahar gaztek trufatzen

Etxekoek berek ongi laneko baliatzen

Laneko baliatzen eta gosez pagatzen.

*(Xorieri min...)*

Hil da xoroa bakarrik bakarrik da ehortzi

Ez zen han kristau bat ere salbu lau hilketari

Salbu lau hilketari ta apeza kantari.

*(Xorieri min...)*

Hil hobian ezartzean haizea zen gelditu

Xoriak ziren ixildu zerua zen goibeldu

Zerua zen goibeldu ta jendea oroitu.

*(Xorieri min...)*

**XOXOAK:** GABC... (**CM**)entzuna (idatzia: **DM**)

Xoxoak galdu du burua,

Burua, galdu du, xoxoak, gaaixoak,

Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoak?

( ... )

Xoxoak galdu du buztana,

Buztana, zangoa, hegala lepoa, moskua, begia,  
burua galdu du sosoak, gaaixoak, (*Nola kant...*)

**ZAZPI EUSKAL HERRIAK: AGUR ETAOH...**

**ZAZPIAK OIHAL BATETIK: ADDADF#E (DM)**

Hitzak eta musika: Eltzegor taldea

Mundu guztiak aditutzen du, euskaldunaren negarra  
alde batera nahiago nuke, ez banintz hemengotarra.  
*Enpeinatzea ez bada libre, alferrik dugu indarra,*  
*hau da txoriak gari tartean, goseak egon beharra.*  
(*Enpeina...*)

Antzerki hontan lau pertsonaia, ta jokalaria bakarra  
arbolak berak erakusten du, hostoa eta adarra.  
(*Enpeina...*)

Sutan pizturik darrai oraindik  
sugai, berriz, lehengo gerra,  
oharkabeen ez zen mintzatu Txirrita poeta zaharra.  
(*Enpeina...*)

Zazpi ahizparen gain den oihala, ebakirikan erditik,  
alde batera hiru soineko, utzirikan lau bestetik.  
*Guraiziakin bereizi arren, bakoitza bere aldetik,*

*ezagutzen da jantzi direla, zapiak oihal batetik.*

*(Guraiz...)*

Oihal bera da gure jantzia, sortu gintuzten unetik

ez du munduak kemenik sortu

kentzeko gure soinetik. *(Guraiz...)*

### **ZENBAT GERA?**

Zenbat gera? lau, bat, hiru, bost zazpi? *(Zenb...)*

Zer egin degu? Ezerrez.

Zer egiten degu? Alkar jo.

Zer egingo degu? Alkar hil?

Gure asmoak, esperantzak,

herria, askatasuna, justizia, pakea,

egia, maitasuna... mitoak, hitz utsak?

*(Zenbat g...)* Hori ez!, hori ez!, hori ez!

### **ZER DUK NIGARREZ: GUDARI ESK...**

## ZIBILAK ESAN NAUTE

Hitzak eta musika: Iparragirre

Zibilak esan naute, biziro egoki,  
Tolosan behar dala gauzak erabaki, (*zibi...*)  
giltzapean sartu naute, poliki-poliki,  
negar egingo luke nere amak baleki. (*giltza...*)  
Jesus tribunalean zutenian sartu,  
ez zion Pilatosek kulparik billatu; (*Jesus ...*)  
**neri ere arkitu ez arren ez didate barkatu;**  
zergatik ez dituzte eskuak garbitu. (*neri ere ...*)  
Kartzelatik atera, fixkalen etxera,  
abisatu zidaten joateko berehala, (*Kartze...*)  
ez **etortzeko** gehiago probintzi onetara;  
orduan hartu nuen Santander aldera. (ez **eto...**)

## ZOINEN EDER DEN: ESPUS ESPUSARI ...

### ZORIONAK

Zorionak zure urtebetetzean  
Zorionak, 'ta urte askotarako  
Zorionak belarritik tiratzean  
Zorionak 'ta musu bat zuretzako.



Berriro ere iritsi zara zure urtebetetzera  
aita-ama ta senideekin zoriontsu zara  
pozaz zoratzen gatoz gu ere gaur zure etxera  
maitasun loreak zuretzako ekartzera. (*pozaz...*)  
(*Zorionak zure ...*)

Gaur bexalaxe opa dizugu urtetik urtera  
osasun onarekin beteaz  
jarraitzeko aurrera.

Berriro ere pozak zoratzen etorriko gara  
maitasun loreak zuretzako ekartzera. (*Berr...*)

## **ZÜ ZIRA, ZÜ**

Zü zira, zü, ekhiaren paria, liliaren floria,  
Eta mirail ezinago garbia!, ikusirik zure begitartia  
Elizateke posible, maitia, dūdan pazentzia,  
Hanbat zirade glorifikagarria!

Oi! krüdela, erierazi naizü, ütsüerazi naizü,  
Ülhünpean eradükiten naizü!  
Argitüren dela erraiten deitadazü;  
Denbora da aitzina joaiten, sekül' ez argitzen,

Üdüritzen zait naizüla abandonatzen.

Sartüz geroz behin bihotzean barna,  
Zerk dereizü pena,  
Xarmagarri ezinago zirena?  
Zük diozü nik düdala ogena:  
**Detzagün** beraz kausak kontsidera  
Nik badüt ogena,  
Eginen düzü nitzaz plazer düzüna.

Oi, maitea, trüfatzen zira naski, üdüritzen zait klarki,  
Amodiorik eztüzüla eneki, amodio ükeitia ez da aski;  
Behar tüzü besteak oro ützi, bai eni jarraiki,  
**Amodio perfekt** bat nik diket zureki.

### **ZUGANA MANUELA**

Hitzak eta musika: Iparragirre

Zugana, Manuela, nuanean pentsatu,  
uste det ninduala deabruak tentatu;  
ikusi bezinekin, naiz enamoratu,  
ojala ez bazina sekulan agertu!  
Amorioz beterik, esperantzik gabe,  
zergatik egin zinan bihotzh onen jabe;

zuk esan behar zenduen hemendikan alde,  
egiazki ez naiz ni bizardunen zale.  
Barkatu behar dituzu nere erokeriak  
zuri begira daude nere bi begiak;  
garbi garbi esan ditut nere ustez egiak,  
zoraturikan nauka zure arpegiak.  
Gauean ibili naiz guztizko ametsetan,  
Donostian nengoela Andremarietan,  
eta ikusi nuela herri hartako plazan,  
erdian zebilela Manuelatxo dantzan.

### **ZURE BEGIEK**

Hitzak: Daniel Landart

Musika: Mikel Laboa

Zure begiek ene maitia, badute biek dirdir eztia  
Zeru kolore miresgarriak, izarren pare zoragarriak.  
Gazte gaztia zira oraino, egun guzia nago zuri so...  
Zure begiek erotzen naute, eta guziek nahi luzkete.  
Gaua delarik mundurat jausten,  
Jauna zerutik da urrikaltzen.  
Zure begien goxoño hori, egon dadien eder ta garbi.  
Ene nahia zinez handia, zu izaitia neure andria.  
Zure begiek ene maitia, badute biek dirdir eztia.

Zeru kolore miresgarriak, izarren pare zoragarriak.  
Gazte gaztia zira oraino, egun guzia nago zuri so...  
Ene nahia zinez handia zu izaitia neure andra.

## **ZUTIK!**

Zutik mutil eta zutik! Eta zuti Euskadi  
Eta zutik jazar hadi aska dadin Euskadi. (*Zut...*)  
Goizalderat mendietan dugu egin gordagi  
Artizarra zeruetan dohalarik ihesi  
eguzkia ortzondoan irten delarik hasi  
gudari hauk gira beiran geure lanari jarri  
arrotzak du zelaietan dolu haundia jauntzi  
eskualdunok betikotan baigaizkio jazarri.

(*Zutik mutil ..*)

Bazter-so bat baderaiat mutil nik barda egin  
Etzakala hortakotzat asma hautala higuin  
ixilkari karrikarat menditik nindukan jin  
etsaiaren gudatzerat gudari lagunekin  
gorarik soz eguzkirat gaituk ikurrinekin  
sarturen bihar herrirat eraginez irrintzin.

(*Zutik mutil ...*)

Bihotzean txiri-muri balinbazauk goizean

Ai! Ai mutil saminari heur'etxez orhoitzean  
Euskadiko haurrak hiri  
baitzaozkik beiran tankan  
azka-agintzaz igeri, bozkariatuz hitan  
bihotz-mina oi gudari bai izana gantikan  
erne erne ibil hadi abestuz gogotikan.  
(*Zutik mutil ...*)

# Korsigeraz

## COMPAGNERO

Piove nant'a *vita*  
L'onda sguasserà  
U sangue, a nufizia  
D'ellu ún *çi* serà.  
Piove nant'à u *çore*  
L'onda infangherà  
Pientu e rumore  
Ma *çhì* si *pó* fa ?

Ricantu:

Una manera di *ç*anta la storia  
Una manera di *fá* ch'ogni loça  
Per tè compagnoero  
S'innalza una manu  
Di fraternità. (*Una mane...*)

Piove nant'a *vita*  
L'onda benistà  
Sumeenta ardita  
Chì spunta dihhjà (*Ricantu*)